

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

Melodia kutxa

Etxarri Aranazko organoak 110 urte bete ditu / 2-4

Epai batek Etxeberri eta Lekunberri arteko Aralar mendian barnako proiektuko lanak gelditu ditu / 7

Bakaikuko eskola zen eraikinean konponketa lanak egiten aurki hasiko dira / 11

Ezkurdiak dio sentsazioak onak direla eta Zallakoa dela irabazi beharreko benetako finala / 16-17

Joseba Perez, Oier Gastesi eta Xabier Olaiz, lehen mailako futbol taldeen harrobian / 20

Kaos Etiliko sorreraren 25. urteurrenean agertokietara itzuliko da / 22-23



Eraikuntza gehigarria
Zure negozioaren erakusleihol!

MARTXOAK 25

publi@guaixe.eus
661 52 32 45 eta 948 564 275 (I. luzapena)



Igandeko mezaren aurretik Alfonso Ondarra Quintana organo elektronikoa jotzen.

"Dakidana baino gehiago jakinen nuke"

ALFONSO ONDARRA QUINTANA ETXARRI ARANAZKO ORGANO JOLEA
Etxarri Aranazko elizako organoak 110 urte egin ditu elizkizunak edertzen eta parrokiako eta Etxarri Aranazko abesbatza laguntzen

hori ateratzen du. Bi teklatuaren soinuak aldi berean entzuteko burnizko lotura bat dauka. Organista onek oinarekin ere jotzen dute (organoek pedalak baitituzte). Teklatuak ongi menperatzen dituzte eta oinekin akordeak egiten dituzte. Nola entzuten den! Nire ezagutzak ez du hainbeste-rako ematen.

Nola funtzionatzen du organoak? Sistema mekanikoa du. Jotzen duzun tekla bakoitzak hagatxo bat beherantz egiten du, organoaren azpitik atzera pasatzen da, kutxara. Han dena tutuz beteta dago. Organoa aire instrumentua da. Aire depositu bat du organoak, hura beteta dago, presioan. Hagatxo horrek tutu bat zabaltzen du, eta soinua ateratzen du. Aire biltegia betetzeko 1941ean motorra jarri zioten organoari. Ordura arte "alubi motorra" zuen. Duen potentziaren arabera soinua ateratzen du. Beraz, zuk erregistro bat zabaltzen duzu, eta jotzen duzun tekla bakoitzeko tutu bat zabaltzen du. Hau da, tekla bakoitza erregistro guztietan tutu bat du. Hau da, 672 tutu ditu organoak. Bakoitzak tonu bat ematen du. Kuxta barruan entzuten da soinua. Bolumen gehiago eman nahi izanez gero kutxaren goiko partean dauden leihotxo batzuk zabaldu ditzake joleak pedalarekin, horrela, ateratzen duen bolumena handitzen du.

Pedalak aipatu dituzte.

Organo handiek pedal independenteak dituzte, Etxarrikoak ez. Pedala zapaltzean tekla bat jaitzen du eta hori entzuten da.

Zergatik daude organoak beti goian?

Ez da kasualitate izaneren. Koruan abesbatza kantatzen egoten da. Ez da zentzuzkoa organoa behean eta abesbatza goian kantari egotea. Zuzendari bat dago, abesbatza eta organo jolea ikusi behar dituen. Eta denak bera.

Zer behar da organo bat jotzeko?

Ufff! Jotzetik jotzen jakitera alde handia dago. Ez da munduan izaneren ni jotzen dudana moduan jotzen duen organo jolerik, hain gutxi ikasita. Argi eta garbi. Aita zenak esaten zidan: penatuko


Alfredo Alvaro Igoa ETXARRI ARANAZKO Musika tresna horren ingurukoak, bere musika ibilbideaz eta elizkizun bat musikaz edertzeko dagoen antolaketaren berri eman du gaur egungo organo joleak.

Nolakoa da Etxarriko organoak?

Bi teklatu ditu, eta haietan, mutur batetik bestera, erregistro osoak ditu. Sei erregistro teklatu bakoitzean. Beste organo batzuk teklatuaren erdiraino iristen diren erregistroak dituzte, eta handik aurrera beste bat.


Zer dira erregistroak?

Ateratzen duzun soinu mota, dentsitate desberdinekoak daude. Hamaika erregistro daude. Erregistro bat aukeratuta, Etxarriko organoan, teklatu bakoitzean dauden 56 tekletan soinu



KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

www.ventanasegoki.com egoki@ventanasegoki.com



948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

zara, penatuko zara. Arrazoia zuen. Piano gehiago ez ikasi izan nak penatu dit.

Bakaikun pianoa ikasi?

1937an jaio nintzen. Haurra nintzela etxean pianoa sartu zen. Idazkari batek azpikeriaren bat egin zuen Bakaikuko Udalean, bota egin zuten eta guztia bahitu zioten. Dena enkantera atera zuten: koadroak, maindireak, mahaia... Aitaren osaba batek esan zion: Aizu, Juan, piano bat dago; harzazu! Aitak: zertarako? Osabak: seme-alabek ikasteko. Aitak: Baina Bakaikun ez dago organistarik, ez dago irakatsiko dien inor! Osabak: berdin dio, ikasiko dute! Utziko dizut dirua pianoa eskuratzeko. Animatu zuen. Pianoa mila pezetatan atera zen (6,01 euro). Zerbait erosi nahi, eta zelula pertsonala eskatu zioten (orduko nortasun agiria). Ez zuen eta haren bila ziztu batean joan zen. Han joan ziren dena saltzen. Enkantea despeditu eta saldu gabe gelditu zirenak berriro enkantera atera zituzten, bi hereneko prezioan. Lehena pianoa, 666,67 pezeta (4 euro). Niretako! Bederatzi anai-arreba izan gara, ni gazteena, nire aurreko arreba lau urterekin hil zen. Uste dut beste zortziek zakar jo dugula piano hori, eta guztiek, gutxi-asko, organoa jo dugu. Bi anaiek organo karrera egin zuten; lehenik solfeoa, gero pianoa, eta piano ikasturte pila baten ondoren, organoa ikasten da. Teklatua bera da, baina dominatzeko, konbinatzeko, bestelako armoniak

"ORGANISTA ONEK TEKLATUAK ONGI MENPERATU ETA OINEKIN AKORDEAK EGITEN DITUZTE"

"AITAK: PENATUKO ZARA! ARRAZOIA ZUEN. PIANO GEHIAGO EZ IKASI IZANAK PENATU DIT"

"FRANCISCO VILLANUEVAK BERA EZ ZEGOENETAN JOKO NUKEEN GALDETU ZIDAN, ETA 38 URTE"

eta beste ditu. Organista ona pedalak eta guzti aritzen da jotzen. Nik ez dut halakorik egiten.

Beraz, txikiena izatean, anai-arrebek erakutsi zizuten?

Jakina. Ni 11 urterekin semi-nariora joan eta urte eta erdi egon nintzen. Han ez nuen musikarik ikasi. Solfeo nekienez Schola Cantorum-en jarri ninduten eta kantatu egin nuen. 13 urterekin bueltatu nintzen etxera. Pianoari kasu gutxi. Isabel ahizpak Bakaikun jotzen zuen eta esaten zidan: eta egunen batean ni faltatzen banaiz? Aizu, ikasi behar duzu! Adin hartan aitarekin sorora lanera. Hartaz bizi ginen. Etxera bueltatu eta lagunekin jolastera ateratzen nintzen. Orain ikas dezakezu pianoa! Nik jolastu nahi nuen. Gaztea, normala, ez? Pianoa gorroto nuen. Ikasteko metodoa jarri eta haren barruan komikia sartzen nuen. Piezak hola edo hala jotzen nituen komikia irakurri bitartean. Hau zer ari da jotzen? Isilik igo eta komikiarekin harrapatu ninduten. Penatu behar zaitu, penatu behar zaitu! Bai, penatu nau. Dakidana baino gehiago jakinen nuke. Baina eskarmentua pilatuz...

Noiz hasi zinen berriz jotzen?

Arreba moja joan zenean, 18 urte izanen nituen. Bakaikun organo jolea behar da, eta badakizu! Alicia arrebak jotzen zuen ere, baina txikitan haur paralisia izan zuen eta eskua eta besoa hala zituen. Jotzen zuen, baina kostatzen zitzaion; ez zuen asko ikasi. Saiatu, jo behar duzu eta! Eta jo nuen. Gero Etxarri Aranatzera ezkondu nintzen. Hemen bazegoen, baina Bakaikun inor ez. Egunen batean joan nintzen. Organoa jotzen zenuen?

Etxarriko bezalakorik ez dago. Harmonium bat zegoen. Baina duela urte batzuk apaiz bat etorri zen, Josetxo Oloriz, eta bi organo elektronikoko berdin ekarri zituen Bakaiku eta Iturmendirako.

Nolaz hasi zinen Etxarri organoa jotzen?

Parrokiako korua bazegoen, baina Francisco Villanueva apaizak Etxarriko abesbatza sortu eta zuzendu zuen. Berak jotzen zuen organoa. Villanueva 1983 edo 1984an joan zen. Joan baino urte bat lehenago Gasteizen birziklatzeko ikastaroak egiten egon zen. Aste guztia kanpoan egoten zen. Astebururen bat egoten zen. Eta joko nuen galdetu zidan. Bera ez zegoenetan jotzen nuen. Ez nuke

entzun nahiko orduan nola jotzen nuen. Urteak neramatzen jo gabe. Oso gutxi nekien. Hasi, sartu, lotu, gehiago, gehiago eta hor nago, kasik 38 urte daramat. Nik ez dut musikarik ikasi. Liburuak irakurri ditu, gauzak egin ditut, praktikaren bidez... Musikak melodia du. Nik jotzen dut eta akonpainamendu bat jartzen diot. Baina nik jarritako akonpainamendu bat edo musikari on batek jarritakoa, ba...

Nola moldatzen zara?

Ordenagailuan kantu gehienak opatzen saiatu naiz, eta akonpainamendua idatzita ere. Hori kopiatu dut. 2.000 pasa partitura egokitu ditut, paperean zeudenak ordenagailura pasa eta txukun jarri. Goiko pentagraman melodia jarri dut eta beheko akonpainamendua. Eta partitura horiekin jotzen dut.

Organoa zer da akordeoia bezala?

Hori da, eskuinarekin melodia jo eta ezkerarekin akonpainamendua. Baina akordeoian ere, jotzetik jotzera aldea dago.

Funtzio guztiak ez dira berdinak. Nola aukeratzen dira piezak?

Ez dut apaizarekin hitz egiten, urteen eskarmentuagatik neronen egiten dut. Ordenagailutik Zaragozako Dabar aldizkariak elizkizun bakoitzerako kantu batzuk aholkatzen ditu. Iruditzen zaizkidan kantuak aukeratzen ditut bi igandetarako. Bakoitzerako taula bat egiten dut eta whatsapppe bidaltzen diet: apaizari, ikus dezan eta bakarren bat aldatu nahi badu esateko; Juan Mari Agirreri, kantuen letren diapositibak jartzeko, diapositiba zerbakia zein den zehazten dut eta parrokiako koruko kideei, jakin dezaten zein kanta diren, eta haien artxiboko kanten zerbakia gehitzen dut. Aste Santua eta Eguberriko ziklo "indartsuagoak" dira, eta, gutxi gorabehera, prestatuta daude.

Gustatzen zaizun piezaren bat entzunez gero, zer?

Pieza ordenagailuan bilatu, partitura lortuz gero, ateratzera, kopiak egin eta gustatzen zaieen galdetzen dut. Gogoko badute, ikasten dute. Hamabost kanta baino gehiago ikasiak ditugu. Erraz esaten da. Pandemiarekin, debekatuta egon denez, ez dugu entseatu. Bizitza ez dugu zaildu nahi ere; jendea ere zahartzen ari da. Pena da, baina, tira.

Gaur egun, noiz jotzen da organoa? Igandero. Beno, Etxarri bigarren organoa dago, Andra Mari ermi-

Anai-arrebak

- **Josefa.** Ahizpa nagusia 14 urte ingururekin Iturmendirako moja joan zen, Andre Mariaren mirabeen komentura. Sor Joaquina izena hartu zuen (Joaquina amaren izena zen). Hark etxean ezer gutxi ikasi zuen. Madrilen musika ikasi eta organo karrera egin zuen.
- **Tomas.** Iruñean apaiztu zen 1948an. Lerinen egon zen. Erdi gor-mutu zen baten laguntzaile hasi zen. Han organo ona opatu zuen. Ikusi zuen tutuak hautsita, erdi zulatuta zeudela ikusi zuen eta ur eta irinaz egindako orearekin estaltzen zituen. Baina arratoiek jan zuten. Zepoak jarri zituzten. Eta ez dakit zenbat urte organoa soinua egin gabe egon ondoren, Santa Barbara egun batez, abenduaren 4an, entzun zen. Eta udalak, esker onez, kaliz bat oparitu zion, ondoren Japonen elizan erre zitzaion. Handik Lizarrara joan zen eta ondoren misioetara joan zen, Japoniara. Aurretik Burgosen ingelesa ikasten egon zen. Liburuak ingelesez eta japoniarrez zeuden. Ingelesa jakin gabe, japoniera jakiterik ez. Japoniara joan aurretik urte bat Kalifornian egon zen, parroki batean. Han dirua ateratzen zuten Japoniako misioa mantentzeko.
- **Maria Jesus.** Andre Mariaren mirabe kongregazioko moja. Bizirik dagoen bakarra, 96 urte ditu eta Sevillan dago. Organo jolea izan zen.
- **Sebastian.** Clinker club orkestrako kidea izan zen, pianotoxa eta akordeoia jotzen zituen.
- **Isabel.** Bakaikun gurasoekin egon zen, soroak lantzen. Bikotekidea zuen, hura etxean sartzen zenean gauza serioa zen. Baina ez zen ezkondu; Iturmendirako joan eta moja sartu zen 25 urte zituela. 19 urtez Rhodesian egon zen (egungo Zambia eta Zimbabwe). Handik Jerusalemara boluntario joan zen, auzo behartsu batean neskato arabiarrendako kolegio batera. Minbiziz gaixotu, Madrilerako ekarri eta hil egin zen.
- **Lorenzo.** "Familiako figura". Organo karrera egin zuen. Konposatzailea. Aita Donostia, Aita Olazarán... oso laguna izan zen.
- **Alicia.** Tomas anaiaekin egon zena.
- **Maria Anastasia, Maritxu.** Lau urterekin hil zen.

tan. Berria da, txikia baina tutuduna da. Migel Anjel Sagaseta Ariztia apaizak ekarri zuen. Ermitan elizkizunak larunbategitan egiten dira. Bestela, irailean Ama Birjinaren bederatzuurrena (agorrilaren 31tik irailaren 9ra) edo han egiten diren ezkontzetan kantatzen eta jotzen dugu.

Orain organo elektronikoa duzu.

Ni ezin naiz korura igo (56 eskailera, zenbatuta ditu). Organo elektronikoa ekarri dugu elizarako, behean jarri dugu. Soinu polita du, baina imitazioa da. Aurretik, Mikel Auzmendi Raul del Torok organo joleari esan zion elizarako organo elektrikoa ekarri behar genuela eta zera erantzun zion: organo eder bat duzue goian, zertarako ekarri nahi duzue tramankulu hori? Abesbatzak kontzertua eman zuen aurrekoan eta del Torok organoa jo zuen eta jendeak esaten zuen: a zer soinua! Organoa ona da. Aldea organo jolea zen, ez dago konparatzerik.

Beste organo joleren bat bi-latzeke esan nien. Nik galdetu nuen, eta konpromisoa hartuko zuen inor ez zegoen. Batek esan zidan nik ezin nuen egunetan ordezkatzeko ninduela, baina astebururo joateko ezetz. Organo jole bila segitzen dugu. Ordezkoa balego, nik utziko nioke, dagoeneko pixka bat neketsua da.

Nondik heldu da Etxarri musika-erekiko dagoen zaletasuna?

Organoa eta organista izateak lagunduko zuen. Parrokiako abesbatza zegoen eta apaizek nahi zutenei solfeo eta kantuko zerbait emanen zieten. Zaletasuna sortuko zen, ez dakit. Etxarri Aranazko abesbatza sortu baino lehen parrokiako korua oso ona zen. Bakaikuko aberatsetako baten hiletan aritu zela gogoratzen dut. Alfredo Martínez eta Dionisio Díaz, haiek ere musika egitekoak zituzten. Musika banda ere egon zen.

Epelen zuhaitzak, organoa elizan

Etxarri Aranazko elizako organoak 110 urte bete ditu. Urte bat geroago Epelen koniferak eta haritz amerikarrak landatu ziren. Udalaren baso aprobetxamenduak eta elizako organoak lotura estua dute

Alfredo Alvaro Igoa ETXARRI ARANAZ BEHEKO basoan dauden Epele, Epeleko sarea eta Epelaundi dermioletatik epaitza ateratzen ari da Maderas Larreta SM. Haritz amerikarra ari dira ateratzen, baita pago pixka bat ere. Guztira 2.360,1 metro kubiko boluimena du baso aprobetxamenduak eta enpresak 75.000 euro ordaindu dizkio harengatik udalari. Epaitza ateratzeko lanak aurrera doaz.

Rafael Carasatorre Vidaurrek *Etxarri Aranatz 1900-1940* liburuan jaso zuenez, Epelen (738.400 metro karratu) Nafarroako Diputazioak bidalitako 29.000 pinu eta izei eta 30.000 haritz amerikar zuhaixka landatu zituzten 1913ko abenduan. Koniferek 88.812 metro karratuko azalera hartu zuten eta haritz amerikarrek 367.500. Etxarriarrek pinuak landatzearen kontra egin zuten eta udalak Diputazioa kexu idatzia bidali zuten abenduaren 3an.

Nafarroako Mendi Zuzendari-tzako Tomas de Villanuevak abenduaren 13an erantzun zuen esanez, jarritako koniferak azaleraren bosten bat baino gutxiago hartzen zutela. "Pinuen artean ez al dira bertako haritzen landareak ateratzen? Horiek kendu egiten al dira? Ez dira zuhaitzak espazioan erregularlari banatuta gelditu eta sekula baino hosto gehiago ez dute sortuko? Gaur bertako haritza landatzea zentzugabekeria iruditzen zait; denean haritz amerikarra jartzea beste zientzia zentzugabekeria bat da, lehendik ez zegoen espezie bat ez baita sekula bakarrik jarri behar, are gutxiago hori Europan berez sortzen ez denean".

Basoa, lanak ordaintzeko

Carasatorrek liburu berean azaldu zuenez, elizan lan batzuk egin nahi ziren eta Ventura Otermin bikarioak kalkulatu zuen lanek 7.500 pezetako (45,07 euro) kostua izanen zutela. Zioenez, elizak 2.500 besterik ez zituen



Etxarri Aranazko organua. Aurrean teklatuak eta atzean tutuen kutxa.



Epelen baso lanak iragartzen dituen kartela pinu eta haritz amerikarren ondoan.

(15,02 euro). Etxarri Aranazko Udalak 1911ko garilaren 25ean egindako bilkuran erabaki zuen eliza pintatzeko eta organoa eraikitzeko lanen erdia ordainduko zituela.

Udalak elizako organoa Ramon Carasatorre y Zufiriaren maileguarekin eta Epeletik ateratako baso aprobetxamendurekin ordaindu zuen. Guztira 795 zuhaitz, haritz eta pago, saldu nahi zituen

Organoak Sakanan

Musikaren Europako Urtea izan zen 1985a. Horregatik, Nafarroako Gobernuak *Organos de Navarra* liburu argitaratu zuen. Haren egileak Aurelio Sagaseta eta Luis Taberna izan ziren, azken hori urtetan Altsasuko organo jolea izandakoa. Liburu hartatik ateratakoak dira ondorengo aipamenak.

Uharte Arakil

Ramon de Tarazonak 1766an egin zuen organoa, haren kutxa errokoakoa Juan Antonio Andres eskultoreak, eta hurrengo urtean Juan Antonio de Logroñok erreztatu zuen. 56 notako teklatu bakarra du eta hamar erregistro oso. Sistema elektrikoa du. Organoaren tutu asko saldu edo lapurtu ziren. Egoera negargarrian dago, interes gutxiakoa.

Lakuntza

Azpeitiko Juan Amezuak eraiki zuen 1857an. Jose M. De Mendizabalek margotuu eta erreztatu zuen kutxa. Teklatu bakarra du, 56 notakoa. Ezker eskuan 13 erregistro eta eskuinekoan 12; erregistroak teklatu erdiraino iristen dira. Egoera onean dago eta oso interesgarria da.

Arbizu

Herri tradizioaren arabera Arbizuko Etxarri Aranazko organo zaharra litzateke. Hala izanez gero, Iruñeko Ramon eta Agustin Tarazona egina litzateke. Baina ikerlariak jatorri horren inguruko zalantza dute. 56 notako teklatu bakarra du. Ezkerreko eskuan zazpi erregistro ditu eta eskuinekoan bost. Erregistro osoak dira. Sistema mekaniko-pneumatikoa du. Egoera eskasean zegoen, eta nahikoa interesa du. Organo elektronikoa dago.

Etxarri Aranatz

Zaragozako Juan Roquesek eraiki zuen organoa 1912an. 56 notako bi teklatu eta hamaika erregistro oso ditu. 1941ean motorra jarri zioten (477 pezeta, 2,86 euro). Aurretik Ramon eta Agustin Tarazona aita seme iruindarrek 1780. urtea eraikitako bat zegoen. Hark Nafarroako 7.000 erreal fuerte balio izan zuen. Egoera onean dago, interes handikoa.

Altsasu


Azpeitiko Juan Amezuari 1861eko azaroan 29.000 erreal (kobrezko txanpoi) ordaindu zizkioten elizan organoa egiteagatik. 1908an haren egoera ez zen ona izanen eta Zaragozako J. Roquesek eraiki zuen 1909an gaur egun dagoena. 1940an erreforma bat egin zioten. 56 notako bi teklatu ditu, behekoan zazpi erregistro eta goikoan bost, hamabiak erregistro osoak dira. Organoa egoera onean dago, oso interesgarria.

Olatzagutia

61 notako bi teklatu ditu, behekoan sei erregistro eta goikoan bederatzi, guztiak osoak. Sistema pneumatikoa eta hauspoa elektrikoa. Egoera onean dago eta nahikoa interesgarria da.

udalak, bost epaitzetan banatuta. Haren bidez 24.129 pezeta (145,01 euro). Bi enkante deitu ondoren udalak bakarrik 1. eta 5. epaitzak saldu zituen. Lanen erdia ordaintzeko nahikoa diru ez zuenez, Etxarri Aranazko Udalak Nafarroako Diputazioari baimena eskatu zion 15.000 pezetako (90,15 euro) mailegua eskuratzeko, irailaren 29an baimendu zuena.

Alkateak elizako lanetarako zein diru ekarpen egin zuen galdetu ondoren, Ventura Otermin bikarioak 1913ko lastailaren 20an erantzun zuen lanek eta organoaren erosketak 23.704 pezetako (142,46 euro) kostua izan zutela, eta udalak 11.882 pezeta (71,41 euro) ekarpena egin zuela. Jakinarazi zuen ere agiriak galdu zitzaizkiola.



ASTEKOA

YOLANDA OLASAGARRE

Herriko bizitzarekin bueltaka

Gure herrietan gero eta zerbitzu (osasungintzan, hezkuntzan...) gehiago ditugu, gero eta aukera gehiago aisialdirako, gero eta kirol-kultur jarduera gehiago, halere, herrietako bizimoduaren mugak hortxe daude hiriarekin alderatuta, eta askok, azkenean nahiago izaten dute hirira bizitzera joan.

Aurreko egunean, ingurugiroari buruzko hitzaldi batean 2050erako populazioaren %70a hiri handietan biziko dela entzun nuen, eta horrek ingurugiroan izanen dituen ondorioak, ematen du, ez direla oso onak izanen. Esandakoaren arabera, herrian bizi garenok nabarmen gutxiengoan izanen gara. Geroz, badago zer pentsatu eta zer egin joera horri aurre egin nahi baldin bazaio: zerbitzuak eskaini, lanpostuak sortu edo mantendu, nahitaez herritik kanpo lan eginen dutenen mugikortasunari gertu gertutik begiratu eta konponbide zehatzak eskaini.

Jakin baitakigu, zaila dela herrietan kotxerik gabe bizitzea. Lan kontuatarako gehien gehienok kotxea erabiltzen dugu. Kotxearen erabilera gutxitzea izan beharko luke helburuetako bat, baina badirudi zaila dugula, alternatiba handirik ez dagoelako garraio publikoarekin, kotxearekin lehiatzeko modurik ez baita ikusten, edo

teleanarekin. Teleana posible den lanpostutan ez baita ikusten bultzatzeko asmo sendorik, apika, agintzen dutenek ikuspegi oso hirizentrista omen dutelako-edo.

Baina tira, lan kontuak alde batera utzita, kultur arloz eta aisialdiaz aritu nahi nuke

HERRIETAKO BIZIMODUAREN MUGAK HORTXE DAUDE HIRIAREKIN ALDERATUTA

oraingoan, herria eta hiriaren arteko aldea gutxitzeko moduak bilatuz. Eta iruditzen zait zenbait gauza egin daitezkeela, gaur egun, Internetek eskaintzen dizkigun aukerak erabilia. Esaterako, Iruñean (edo beste hiriren batean) antolatzen diren hitzaldiak *streaming* bidez zuzenean herrietan ikusteko aukera ematea kultur etxeetan edo udaletzeko aretoetan pantaila handi bat jarrita. Adibide modura, hilabete hauetan Udako Euskal Unibertsitateak, Eusko Ikaskuntzak eta Nafar Ateneoak Jose Ramon Etxebarrarekin antolatu duen hitzaldi zikloa (CIVICANen ematen dena) herrietan ikusteko aukera izatea. Horrelakoak ere amua izan daitezke herrietan bizi nahi dugunondako.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Ez dira munstroak

ANITZARTEAN KULTURARTEKOTASUN ZERBITZUA

Gizakiak dira, zu eta ni bezala. Bizi hobe baten bila, zorionez? Nafarroara iritsi diren gazteak dira. Zein da haien delitua? Gazteak izatea? Beste jatorrikoak izatea? Beste hizkuntza bat hitz egitea? Itxura, janzkera, bizimodu, eta abar luze ezberdin bat izatea?

Ez, ez dira munstroak. Gizakiak dira, zu eta ni bezala. Eta ez, ez dira gazte migratuak delitugile bakarrak, duela ez asko Iruñeko alkate Mayak adierazi zuen bezala.

Erakunde publikoek eta haien ordezkariak, gizarte kohesionatuak bultzatzeko betebeharra dute, eta ez kontrakoa. Aukera berdintasuna, tratu

berdintasuna eta eskubideen berdintasuna zein babesa eta bermearen alde egin behar dute, egoera ahulenean daudenei arreta berezia eskainiz. Tamalez, Maya ez da diskurtso xenofoboa zabaldu duen ordezkari publiko bakarra, jatorria eta ezaugarri fisikoak delinkuentzia eta marjinalitatearekin lotuz, eta hamaika gizaki susmopean jarriz. Eta horrek beste arrakala bat sortu du, pandemiak ekarri duen arrakala soziala areagotu baitu, ezinezkoa bazirudien ere.

Ba bai, posible izan da, baina ez, ez da bidezkoa. Ez da bidezkoa arrazakeriarekin merkadeatzea bozka gutxi batzuen truke. Beste jatorri bateko herritarrek nahikoa zailtasun izaten dute askotan:

tituluen homologazioa, lana aurkitzea, traba administratiboak, pobrezia, bazterkeria, harrera gizartearen hizkuntzekiko zailtasunak...

Otsailaren 21ean, Ama Hizkuntzen Nazioarteko eguna ospatzen da. Ama hizkuntzez blaiturik gaude zorionez. Gure izaera aberasten du horrek, beste komunitateak ulertzea dakar, eta haiengandik ikastea, aukera probesteko jarreraren bagaude behintzat. Hortaz, hizkuntza aniztasuna, kultura aniztasuna, kulturen arteko komunikazioa eta elkarbizitzaren alde lanean jarrai dezagun, ONGI ETORRI hamaika hizkuntzetan adieraziz.

Izan ere, ez dira munstroak, gizakiak baizik, zu eta ni bezala.

GUTUNA

Kaixo Fran,

JEXUX RAZKIN MENDINUETA

Urtea pasatu duk elkarrekin egon ginela azkenekoz Etxarrin trago batzuk hartzen goizean gustura eta pozik, nola ez ba! Oihanen ongietorria ospatzen. Gero ni bazkaltzera eta hi han gelditu lagunekin joan hintzen. Baina hurrengo goizean hire berri txarra denon ahoan zegoan, eta Tanatorioan negarrez agur esan nian.

Egun triste eta gogorrek dituk hauek.

Preso eta iheslarien alde hik egindako lana eskertzekoa duk. Bide horri jarraituko zioagu. Hire agur egunean, Euskal Herri osotik etorri hituen hire lagunak, eta orain urte batzuk Iparraldeko Garbiñe abokatua zena ere bai (nik ez nian ezagutu, baina berak ni bai) eta galdetu nioan nor zen eta berak erantzun Frantziaren preso zeuden kartzeletako zuzendariarekin ibili ginela hizketan. Une

ederra pasatu genian pozik eta atera hituen Iparraldera.

Hire bizia jendeari laguntzen pasatu duk eta hala ezagutu hau jendeak, beti prest gauzak egiteko eta laguntzeko, behin Sartagudan bezala, melokotoiak ekartzeko barkak betetzen. Beti gauzak antolatzen eta egiten ibiltzen hintzen. Hik utzitako lanari helduko zioagu eta egunerokoa borrokarekin jarraituko diagu hari eta preso eta iheslariak etxeratu arte.

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhua Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Oihane Mazkian Lopez de Munain

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Iune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

60

%80

12

**Guaixe fundazioaren bazkidetzaren
%80a itzuliko zaizu**

Urtean 60 euro ordaindu eta 48 euro
berreskuratuko dituzu errenta aitorpenean.

2021ko ziurtagiria eskatu:

admin@guaixe.eus edo 948 564 275,

Foru plaza 23, 1. solairua. (Altsasu)



Arakilgo historia eta ondarea ikertzeko beka

Udalak deialdia egin du eta martxoaren 17ra arte aurkeztu daitezke eskabideak.

ARAKIL

Ibarreko ondarearen eta historiaren inguruan lan bat egiteko, Arakilgo Udalak *Jimeno Jurio 2022* bekaren deialdia egin du. Haren bidez gaur egungo eta historikoki egon diren ondare elementuak (larrainak, karobiak edo kisulabeak, ikuztegiak edo labaderoak, matsardeak edo kirikinausiak, labeak, angioak, saroiak, meategiak, harrobiak, elurzuloak, erroak, burnitegiak, sutegiak, teileriak, dolareak, batanak, perratokiak, zubiak, galtzada, etab.) katalogatzea, artxiboetatik, landa lanetik eta ahozko inkestatik datorren informazioa kontuan hartuz.

Deialdira unibertsitateko goi mailako titulazio bat duten pertsonak aurkez daitezke, baina historia, patrimonia, etnografia eta antropologiarekin zerikusia dutenak lehenetsiko dira. Bakar-ka edo taldean egin daiteke lana; taldean bada beka bakar bat izango da eta taldeak arduradun baten ordezkari izan beharko du. Interesatuak Euskal Herriko udal batean errolatuta agertu beharko dira. Beka hartzen duenak 6.000 euro jasoko ditu, eta beste mila euskaraz aurkeztuta badago. Bekaren hartzailak urte bat izanen du lana despeditzeko.



Ettxeberriko ikuspegia Aralar mendia atzean duela. ARTXIBOA

Gasbide proiektuko lanak gelditu du epaiak

Aralarren barna, Ettxeberri eta Lekunberri lotu nahi zuen. Enpresak udalaren erabaki baten kontra egin eta epaileak udalari arrazoia eman dio. Beste epaitegi batean udalaren proiektuaren kontrako helegitea atzera bota dute, helegitea aurkeztuko du

ARAKIL

Nedgia Navarra SA enpresak helegiterik aurkeztu ez duenez, atzotik irmoa da Iruñeko Administrazioarekiko Auzien 3. epaitegiak emandako epaia. Enpresak Arakilgo Udalari administrazio isiltasunaren ziurtagiria eskatu zion gasbidea egiteko lanekin hasteko, eta udalak ukatu egin zion. Oihana Jaka Olaberria alkateak azaldu duenez, "prozedura ez zegoen ongi eginda eta dokumentazioa falta zen. Horre-

gatik ukatu genion eskaera, eta epaileak arrazoia eman digu. Bestela, lanak egiten hasiko ziren". Geroz, Ettxeberri eta Lekunberri arteko gasbidea Aralar mendian barna eramateko lanak ezin dira egin. Jakak azaldu duenez, "enpresak ez du helegiterik aurkeztu eta epaia irmoa da. Gainera, jurisprudenzia sortu dugu. Lanak geldi daude eta ezin da ezer egin".

Gasbide proiektuaren kontra plataforma sortu zuten larraun-

darrek eta arakildarrek. Epaiak sakon aztertu zain, kideen lehen balorazioa da "halako epai bat izatea garrantzitsua" dela, "obrak egiteko prozeduran hutsuneak badaude, gauzak argi ez badaude, gelditu dituelako". Plataformako kideek gogorarazi dute bai herritarrek bai udalek proiektua hasieratik "inposizio" gisa ikusi dutela. "Epaiak borrokatzeko indarra ematen digu". Ziurtatu dutenez, gasbide proiektuaren kontra mobilizatzen segituko dute.

Beste epaia

Nafarroako Gobernuo Industria Antolamendu, Energia Azpiegitura eta Meategien Zerbitzuak administrazio baimena eman zuen Ettxeberri eta Lekunberri arteko gasbideko lanak egiteko. Erabaki haren kontra Arakilgo Udalak helegitea aurkeztu zuen Nafarroako Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salan, eta ez du udalaren helegitea onartu. Jakak azaldu duenez, "epaileek atzera bota dute helegitea, baina ez da gai juridikoetan sartu". Alkateak helegitea zergatik aurkeztu zuten azaldu du: "proiektu oso eskasa aurkeztu zuten, dokumentazio falta handia zegoen. Eta aurkeztu zuena epez kanpo aurkeztu zuen Nafarroako Gobernuak. Prozeduran zehar agiriak aurkezten joan denez, epaileek atzera bota dute helegitea". Hala ere, Arakilgo Udalean ez daude epaierekin ados eta kasazio helegitea prestatzen ari dira. "Lege arrazoiak baditugu eta Epaitegi Gorenerainoko bidea egiteko prest gaude", azaldu du Jakak. "Beste epaia ez balego, lanak hasiak leudeke eta auzibide hau bukatzerako despedituta leudeke". Hala ere, epaitegiatiko bidez aparte, administrazioen arteko elkarrizketak ere izan nahi dituzte udal ordezkariak, Lekunberriko Udalarekin eta Nafarroako Gobernuarekin.

Jakak gogorarazi du Lekunberri eramatearen kontra ez dardela, baizik eta aukeratutako ibilbidearen kontra. "Plazaolako bide berdean barna egin daitekeen txostena aurkeztu dugu handik gasbidea eraman daitekeela dioena. Enpresak ere handik eraman nahi zuen duela urte batzuk. Eta Plazaola turismo partzuergoa handik eramatearen alde egin du".



Ikastolen sarea

Euskal kultura

Gertutasuna

Ernetzen ari den hazia

Konfidantza

0-16 urte

Elkarrekintza

TXIKIA

ATE-IREKIAK

2022.02.25
16:00-18:00

2022.02.26
10:00-13:00

BISITA TALDE
TXIKIETAN

HITZORDUA
689.45.41.68

Pentsioen sistema publikoaren alde, ozen

Pentsiodunen eros ahalmena bermatzea eta pentsioak KPI erreala igotzea eskatu dute, gutxieneko pentsioa 1.080 eurokoa izatea eta pentsio eta lan erreformak bertan beheara uztea

Alfredo Alvaro Igoa IRURTZUN

Pentsio plan pribatuei atea ireki gabe, pentsio sistema publikoa bermatzea eskatu zuten 60 bat pertsonak Irurtzunen larunbatean. Estatuan barna ere makina bat mobilizazio deitu zituzten elkarte eta plataformek.

Izan ere, pentsio sistemaren erreformaren bigarren atalean "plan pribatuek arautuko dituzte, nahiz eta, pentsioen sistema publikoa sendoa eta bideragarria dela onartu. Pentsio publikoak eskubide bat dira, ez negozio pribatu bat".

Horrekin batera, salatu zuten, "prekaritateak emakume aurpegi du, gutxieneko osagarriak



Pentsio duinak eskatu zituzten. UTZITAKOIA

dituzten pentsiodunen bi heren emakumeak dira".

Gobernuaren tranpa

Irurtzungo plazan bildutakoek, bestalde, urte batetik bestera pentsioen balio handitzean gobernuak egindako "tranpa" salatu zuten: "erreferentzia gisa urteko Kontsumo Prezio Indizearen (KPI) batz bestekoa ezarzen du. Hori %5,25ekoa izan da, baina KPI erreala %5,5ekoa izan da. Beraz, pentsiodunek %3ko erosteko ahalmena galdu dute. Horregatik, bildutakoek 2022rako eta hurrengo urteetarako pentsioak KPI errealekin eguneratzea exijitu zuten, eta baita

aurtengo eros ahalmenaren galera konpentsatzea ere.

Horrekin batera, pobrezia atalasetik beherako pentsiorik ez egotea bermatzeko eskatu zuten. Horretarako, soldatetan eta pentsioetan dagoen genero arrakala ezabatu eta gutxieneko pentsioa handitzea eskatu zuten, azken hori Lanbide arteko Gutxieneko Soldaterekin parekatzea eskatu zuten, eta batz besteko soldatarien %60 izatea, Europako Gutun Sozialak gomendatzen duen bezala. Hau da, gutxieneko pentsioa 1.080 eurokoa izatea.

Kaleratzearen beharra

Pentsio Publiko duinak eta nahiakoak eta pentsio sistemaren izaera publikoa bermatzeko 2011, 2013 eta 2021eko erreformen murrizketak indargabetzea eta sistemaren pribatizazio osoa edo partziala baztertzeko exijitu zuten.

Eta, azkenik, adierazi zuten, "2010ko eta 2012ko lan erreformen alderdi kaltegarrienak bere horretan uzten dituen lan erreformaren onarpenak areagotu besterik ez du egiten pentsiodunak eta langileak elkartu eta kaleratzearen beharra".

Nafarroako Gobernuari tortura ikertzeko eskatu diote

Nafarroako Torturatuen elkarteak eskatu dio 1978tik aurrerako tortura kasuak ikertzeko

Hainbat sakandar presente zuela, Nafarroako Torturatuen elkarteak aurkeztu zuten Berriozarren larunbatean. Elkartean daude "gure historia hurbileko zenbait unetan tortura geure azalean jasan" dutenak eta tor-

turaren ondorioz eraildako Nafarroako herritarren senideak. Torturatuen Sarea ehunten hasi dira eta, jakinarazi zuten, Nafarroan torturatuen errealitatea mila pertsonen baino gehiagok osatzen dute.

Elkarte berriak bi egiteko ditu. Alde batetik, bere sarea zabaldu eta, bestetik, Nafarroan torturatuen errolda ahalik eta zehatzena osatzea. Horretarako formularioak banatu dituzte. Tortura jasan dutenei haiek betetzera gonbidatu dituzte "torturaren inpunitearekin behingoz bukatzeko, egin beharreko lana" delako.

Gobernuari

Elkartekideek Nafarroako Gobernuari eskatu diote, 1978tik

aurrerako tortura kasuak aztertzeko, 1960 eta 1978 aldiarekin egin zuen bezala. "Ikerketa ofizial, zientifiko eta independente baten garapenarekin konprometitu dadila. Nafarroan, Estatuko Segurtasun Indarrek zenbat pertsona torturatu ahal izan dituzten argitzeko" nabarmendu zuten.

Bide batez, jakinarazi zuten garagartzaroren 25ean, hain zuzen ere Torturaren Biktimen Babeserako Nazioarteko egunaren bezperan, mobilizazioa egingen dutela.

Itaia Emakumeen Eguna begira jarri da

Larunbaterako egitaraua antolatu du, martxoaren 4rako hitzaldia eta 18rako mobilizazioak

SAKANA/ALTSASU

Itaiak, emakumeen antolakunde sozialistak, Emakume Langileen Nazioarteko Eguna dela eta hainbat ekimen antolatu ditu, guztiak ere *Emakume langileok askatzeko sozialismoa eraiki!* lelopean bildu dituenak.

Larunbatean Altsasun


Hasteko, larunbatean, Altsasuko gaztetxeak egun osoko egitaraua hartuko du. 10:00etan herri apainketari ekinen diote, 14:30ean bazkaltzeko etena egingen dute eta 16:30ean *Oh, gu hemen* bigarren saioa eta kafe tertulia izanen dira. "Gero eta sexualizatuago dagoen gizartean, horrek emakume langileengan duen eraginarekin, ondorio politikoen eta beste hainbat konturen inguruan" hizketan aritu dira.

Hitzaldiak eta mobilizazioak

Itaiak jakinarazi duenez, martxoaren 4an, ostiralarekin *Gaur egungo emakume langileon egoeraz hitzaldia* izanen da Altsasuko Gure Etxea eraikinean. Azkenik, martxoaren 8an mobilizazioak izanen direla aurreratu dute. Lehenik, 18:00etan, elkarretaratzea Lakuntzako plazan eta, ondoren, 19:00etan, manifestazioa Altsasun.

JARRAI GAITZAZU INSTAGRAMEN !!!

eta horrela gure produktuak ezagutuko dituzu, nola egiten dugun lan, gure dendak eta salmenta puntuak... Baina hainbat lehiaketetan ere parte hartuko duzu, promozioekin onurak izan, ideia handiak... eta askoz gehiago ere.



@panesamayaogiak

Amaya

OGITEGIA

Urdalurko ura 2025erako Irurtzunera iritsiko da

Nafarroako Gobernuak jakinarazi du ur sarea luzatzeko lanak diruz lagunduko dituela

IRURTZUN / ARAKIL

Sakanako Mankomunitateak Nafarroako Gobernuari eskatu zion Uraren Plan Zuzentzailean Urdalurko ur sarearen luzapena sartzea. Joan den urtean egindako lanekin, Urdalurko ur sarea Etxarrengo ur biltegi-raino iristen da. Gelditzen den azken lana Etxarren Irurtzun arteko sarea egitea da. Ibarreko erakundeko lehendakari David Oroz Alonsok azaldu duenez, "momentuz ez dugu ez proiekturik ez planteamendu zehatzik. Aurten zehaztuko dugu egitasmoa".

Bitartean, Lurralde Kohesio-ko Departamentuak jakinarazi du 41 milioi euro inbertituko dituela hurrengo lau urteetan goi ur hornidurako eta hiri hondakinen tratamenduko azpiegiturak hobetzeko eta berri-tzeko. Helburua da biztanleen %100 kalitate handiko ur gordinez hornitzea iturrietatik, eta kontsumorako uren araudia erabat betetzea. Nafarroako Gobernuak Toki Inbertsioen Plan berriaren bidez 2025 bitartean diruz lagunduko dituzten 44 inbertsioen artean dago Sakanako Mankomunitateak eskatutakoa, Urdalurko ur sarea Irurtzunera luzatzea.

Artxuetaarako bidea gobernuaren esku

Lurralde Kohesiorako Departamentuak Nafarroako Errepide Sarearen katalogo ofizialean sartu du telekomunikazio antenez jositako mendi tontorreraino iristen den errepeidea. Hura zaintzeaz eta mantentzeaz arduratuko da

UHARTE ARAKIL

Aralar santutegiaren atzean antenez jositako ageri den mendia da Artxueta. Telekomunikazio azpiegitura horiei zerbitzua behar bezala emateko bere garaian Artxueta bidea zabaldu zen. Aralarko Guardetxe zena eta santutegira lotzen dituen errepeide NA-7510 errepedetik abiatzen da 1.350 bat metro dituen pista. Haren izen ofiziala NA-7515 da, eta toki errepeide sailkapena du. Herri Lanen zuzendaritzak errepeide hori eta herrialdeko beste 47 Nafarroako Errepide Sarearen katalogo ofizialean sartu du. Aipatu katalogo ofizial hori tresna publikoa da, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren jabetzakoak diren Nafarroako Errepide Sareko errepeideak identifikatu eta inbertariatzeko balio duena.

Horrek aukera emanen dio Nafarroako Gobernuari bide horietan kontserbazio integraleko jarduketak egiteko. Hau da, errepeidearen egoera egokia, segurtasuna eta erosotasuna zaintzeaz arduratuko da foru administrazioa. Konponketa premia galanta du errepeideak, zuloz jositako baitago. "Antenetara igotzen zirenek konpontzeko eskatzen zuten" azaldu du Txomin Uhartek Baleztena alkateak, "urteetan ez da konponketarik egin eta premia handia



Orotariko ibilgailua Artxueta bidean behera. ARTXIBOA

du. Positiboa izanen da moldatzen badute", gaineratu du.

Pista eta antenak

Uhartek Arakilen dermio handiaren zati bat Aralar mendian dago. Herriko abeltzainendako eta baso kudeaketarako santutegirantz igotzen den pista zabaldu zuen udalak Aralar magalean. Porlanezko pistari erreparatu zion Espainiako Vueltak eta txirrindulari profesionalak bitan igo dira handik. Uhartek Arakilgo Udala eta Nafarroako Gobernuaren arteko harremanak izan ziren bi

aldietan, izan ere, pista ez baitzegoen txirrindulariak pasatzeko moduan. Konponketak gobernuak egin zituen. Alkateak azaldu duenez, "pistaren mantentze eta segurtasun neurriak bere gain hartzeko aukera aipatu genien. Baina pista Errepide Sarean sartzeko ez dute inondik inora ikusten. Hala ere, horretaz herrian poleki hitz egin beharko da".

Bestetik, Artxueta dauden telekomunikazio azpiegiturak arautzeko ordenantza onartu zuen Arakilgo Udalak. "Zerbitzua eskaini eta mantentzea zehazteko da"


argitu du Uhartek. "Zuloz beteta dago mendia. Bakoitzak bere ar-gindarra edo dena delakoa Artxueta eramateko zuloa egitea eskatzen du. Orain Nasertic enpresa publikoak zuntza eraman behar badu... obra batek egin dezala eta zerbitzua denei eman diezaiela. Denendako izan dadila eta ez dezala bakoitzak berea egin. Eta daudenen artean proportzionalki ordaintzeko".

Artxueta dauden telekomunikazio enpresen gustukoa ez zen izan ordenantza eta haren kontrako helegitea jarri zuten. Udalaren aldekoa izan da epaia eta zenbait aldaketa eginda indarrean da Artxueta telekomunikazio parkea arautzen duen ordenantza. Alkateak jakinarazi duenez, "bidea jorratzen segitzen dugu", eta udalaren hurrengo pausoa ordenantza fiskala onartzea izanen da.



Uholdearen arrastoak

Larunbat goizean ubelde bazterretik eta beste txoko batzuetatik adarrak, materia organikoa, plastikoa eta txatarra puskak atera zituzten dozena bat uharterrek auzolanean.


GUAIXE
618 882 675


BiL TOKI
TABERNA • JATETXEA
Eguneko
menua 11 €
Menu
berezia 15 €
Telefono berria:
948 562 348 · Altsasu


EHko mapa salgai
(108x97 cm)
fotokopia@kaxeta.net
628 542 519 | 948 460 477

Etixerako aseguroak
Zure etxea dena delakoa izanda ere
Konfiantzako aseguratza orokorra!
JOSE ANTONIO IMAZ PRIM
948 563 354
jimazpr@mapfre.com
San Juan 48 · ALTSASU
%25 DESKONTUA


Burunda mendebaldean osasun arreta duina eskatuko dute

Igandean, 13:00etan, Altsasuko Foru plazatik abiatuko da EH Bilduk deitutako manifestazioa

ALTSASU/OLATZAGUTIA/ZIORDIA

Altsasuarrak, olaztiarrak eta ziordiarrek "osasun zerbitzu duin, publiko eta kalitatezkoaren alde" igandean manifestatzaera gonbidatu ditu EH Bilduk. Altsasu, Olatzagutia eta Ziordiko osasun eskualdearen osasun arretak azken urteetan "osasun arretaren egoera txarrera egin" duela adierazi du Joseba Vizuete Askargortak, Olatzagutiko alkateak, "herriarren artean etsipena eta frustrazioa ikusten ditugu" gaineratu du. Ziordiko alkate Olatz Irizar Martinezek gogoratu duenez, "gure osasun eskualdean biztanleria jende edadetua da, mediku zerbitzu gehiago behar dituen". Bi datu eman zituen: Ziordian herriarren %21 70 urte baino gehiago ditu eta Burunda mendebaldean bakarrik bizi diren 80 urtetik gorako pertsonak Nafarroako batz bestekoa baino altuagoa dela (eskualdean %22,4 gizonezkoak eta %44,5 emakumezkoak, Nafarroan %19 eta 38,4). Irizarrek gogorarazi zuen 6,5 mediku plazatik 5 besterik ez daudela

beteta (batek hilabete baino gutxiago darama). Pediatría plazak 1,5 dira eta bakarra dago aspaldi. "Langile falta horrek lan karga handia dakar zentzoko gainerako profesionalendako", gaztigatu du Irizarrek.

Altsasuko zinegotzi eta eskualdeko oinarrizko gizarte zerbitzuko mankomunitateko presidente Javier Paz Miñok Nafarroako Gobernuari eskatu dio "behar diren neurri guztiak har ditzala gure oinarrizko osasun eskualdean dauden gabeziak konpontzeko. Gure biztanleendako osasun arreta egokia lehenbailehen bermatzeko eskatzen dugu".

Ez da lehen aldia EH Bildu osasun eskualdearen osasun egoeraz kezka azaldu duena. Arrazoi beragatik joan den urteko otsailean kontzentrazioa deitu zuen, orduan osasun eskualderako langile gehiago eskatu zituen. Bide batez, koalizioa kideek Nafarroako Osasun plataformak Iruñean gaur, 19:00etan, antolatuta duen manifestazioan parte hartzera dei egin du.

DUELA 25 URTE...



Iyoteak Arruazun

Ume arbazuak guztiek beraien mozorroa aukeratu eta, ohitura zenez, makilak eta erratzak eskutan harturik kalera atera ziren otsailaren 16ko, igandeko, 16:00etan. Hogei mozorrotu inguru elkartu ziren. Txikiak Arruazuko kale eta atzekoetatik ibili ziren eta bakarren bati makilazo bikaina eman zioten. Iluntzean etxeko eskea egin zuten, merendurako eskea egiten. Ostatuan merendu ederrarekin gozatu zuten.

Jatetxe bateko langileen prekarietatea salatu dute

Olatzagutiko gasolindegiko jatetxean Nafarroako ostalaritzako lan hitzarmena ez dela betetzen salatu du sindikatuak. LABen arabera langileek lan ordutegirik, oporren egutegirik eta lizentziak hartzerik ez dute

OLATZAGUTIA

Valcarce taldearen Olatzagutiko garraiolariendako zerbitzu guztiak gasolindegiaz aparte, hotela eta jatetxea ditu. Azken horren kudeaketa zuzena egiten zuen Valcarce taldeak, baina joan den urtean Andamur enpresaren esku utzi zuen jatetxea. LAB sindikatuak salatu duenez, kudeatzaile berria dagoenez geroztik hasi ziren arazoak. Sindikatuko arduradunek azaldu dutenez, bajaran zeudela bost langile kaleratu ditu. Langileei 50 ordu baino gehiagoko lan asteak ezartzen dizkie, medikuagatik edo bestelakoengatik dagozkien lizentziak ukatzen dizkie langileei eta ez dute lan eta opor egutegirik. Sindikatu abertzaleko arduradunek horrela laburbildu dute jatetxe horren egoera: "ez du Nafarroako ostalaritzako lan hitzarmena betetzen".

Jatetxean 10-15 langile artean lan egiten dute. Denak emakumezkoa dira, denak migratuak. Kaleratuta izan diren emakumezkoek esandakoak Sakanako LABeko arduradunek esandakoa berretsi besterik ez dute egiten. Emakumezko batek azaldu duenez, "baja hartu ondoren, nagusiak mehatxuka hots egiten zidan, alta har nezan. Bajaran nengoela bota ninduen". Oporretan zegoen langile ohi batek burofaxa jaso zuen, eta horrela jakin zuen lantokitik kaleratuta zegoela. Berak azaldu duenez, "ez zidan aurretik jakinarazpenik egin". Eta jatetxean bizi izandako lan baldintzak azaldu ditu: "bederatziko orduko lanaldia nuen eta atseden egun bakarra". Kaleratutako hirugarren emakumezko batek azaldu duenez, "oporrek nagusiak nahi duenean ematen ditu. Ez ditu lan hitzarmeneko 21 egunak errespetatzen. Soilik 15 egun ematen ditu, eta berak nahi duenean. Eta, posible bada, aste bat hartzeko esaten dizu. Gainera, aurreko urteko opor egunak gel-



Lan prekarietatearen kontra protesta egiten Olatzagutiko gasolindegian. @LAB_SAKANA

BAJAN ZEUDELA JATETXETIK BOST LANGILE KALERATU DITUZTELA SALATU DU LAB-EK

ditzen bazaizkizu ordainduko dizkizula esan eta ez du egiten". Azaldu duenez, batzuk opor egun horien truke kobratuko zuela zioen papera sinatu zuten, baina ez dute ezer jaso.

Azkenik, "bajaran nengoela kaleratu ninduen eta ez zen adiskidetzeko ekitaldian ez zen aurkeztu" salatu du beste langile ohi batek. LABetik azaldu dutenez, bidegabeko kaleratzea salatu ondoren akordiora iristeko aukera da adiskidetzeko ekitaldia. "Baina nagusia aurkezten ez denez, epaiketa izanen da. Kontua da hori sei edo zortzi hilabete barru izanen dela. Bitartean emakumezkoak zain egon behar". Eta lan harremaneko azken kitatzea kobratu gabe.

Paperak

Sindikatuak Andamurreko arduradunaren beste jokabide

baten berri eman du ere: "langile kaleratu ondoren, enplegu bulegora joaten da langabe gisa izena emateko. Aldi berean, enpresek ziurtagiria bidali behar diote Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari (SEPE gaztelaniaz). "Nagusi honek ez du bidaltzen garaiz. Ziurtagiri horrekin jakiten da zer prestazio dagokion langabezian dagoen pertsona bakoitzari. Guk jakinarazi behar izaten diogu SEPEko abokatuei eta haiek Andamurreko nagusien atzetik ibili behar dute. Langileak bazterrean botata uzten ditu". LABetik argitu dutenez, lortu dute kaleratutako bost emakumezkoak langabezia kobratzea. Sindikatu abertzaleko ordezkariak azaldu dutenez, zerbitzueguneko jatetxean "langileak etengabe aldatzen ari dira. Sukaldari bat kaleratu duela jakin dugu. Lehen laneko martxa zekitenak zeuden, baina orain esperientzia gutxiko langileak daude eta zerbitzuan arazoak daude. Bezeroak erreklamazio dezente jartzen ari dira". Sindikatuak langile horien prekarietatea salatu eta haien egoerari jarraipena egiten diela azpimarratu du.

Eskolena zen eraikinean lanak aurki hasiko dira

Teilatua berritzeko lanak otsaila akaberan hasiko dira. Beheko solairua aurten berritu nahi du udalak, haur eta gazte txokoa eta erabilera anitzeko gela egiteko. Goiko solairua hutsik geldituko da. Nasuvinsarekin hizketan ari dira, han gizarte etxebizitzak egiteko

Alfredo Alvaro Igoa BAKAIKU

Nafarroako Gobernuaren Toki Azpiegitura Planean jasotako lan batzuk ez dira egin. Halakoetan foru administrazioak dirua erre-serban gelditu ziren udalen artean banatzen du. Bakaikuko Udalak Nafarroako Gobernuaren 54.933,11 euroko dirulaguntza jaso zuen. "Abenduan jakinarazi ziguten", azaldu du Egoitz Urritza Lazkoz alkateak. Dirulaguntza horrekin eskola zenaren teilatua konponduko du udalak. Lanak Construcciones Leache enpresak egingen ditu (72.000 euro, BEZ kanpo) eta otsailaren 21ean hasiko dira.

Eraikina berritzeko Bakaikuko Udalak foru administrazioetik jasotzen duen dirulaguntza bakarra ez da hori. Izan ere, Nafarroako aurrekontuen tramitazioan, EH Bilduk proposatuta, Bakaikuko Udalarari 125.000 euroko transferentzia zuzena egitea onartu zen. Urritzak azaldu duenez, "diru horrek ez du eraikin guztia zaharberritzeko ema-



Eskola zenaren maketa elizako jaiotzan zegoen, Jose Angel Galarzak egina.

ten. Isolatzeko ere ez du ematen. Beheko solairuan ahal den gehiena egingen dugu. Gaur egun lanen proiektua fintzen ari gara". Behean haur eta gaztetxokoa eta erabilera anitzetako gela pres-tatu nahi dituzte.

Goiko solairuan bizpahiru etxebizitza egin nahi lituzke udalak. "Gizarte alokairuko etxebizitzak lirake. Horretarako Nasuvinsa enpresa publikoko ordezkariekin hitz egiten ari gara. Bakaikun egon ziren eta

eraikina ikusi zuten. Txosten bat prestatzen ari dira eta zain gaude" esan du Urritzak, eta gaineratu du "printzipioz goiko solairua hutsik" geldituko dela. Alkateak lanak martxo-apirilerako eman nahi lituzke, azaro akaberarako despedituta egon behar baitute.

Denda

Gaur egun herrian dagoen denda ixtear dela eta Bakaiku zerbitzurik gabe ez gelditzeko bakaikuarrek denda bat zabaltzea erabaki zuten, eta udalak erabakia babestu. Egoitza erosita hura egokitzeke dirulaguntza eskaera eginga du udalak Cederna-Garalurren bidez. 86.000 euroko aurrekontua luke Maldai larraineko 3. zenbakiko egoitza egokitzek. Bitartean bakaikuarrak denda kudeatzeko herri kooperatiba sortzen ari dira, udalaren laguntza izanen duena.

Bestetik, Bakaikuko Udalak energia eraginkortasunerantz pausoak eman eta argindar faktura murrizteko argiteria publikoko bonbillak LED argiengatik ordezkatu nahi ditu eta argiaren intentsitatea jaisteko tresnak jarri. Horretarako, dirulaguntza eskatu du. 130.000 euro inguruko inbertsioa da, %100 finantzatuko litzatekeena laguntzaren bidez. Erantzunaren zain daude. Azkenik, abenduko uholdeek dermio-ko bide bat 40 metroko luzeran hondatu zuten, eta hura konpondteko dirulaguntza eskatuko dute.



Familietako bat, zuhaitza landatzen.

Zuhaitz eguna Arbizuko San Joan ermita inguruan

Beste behin Arbizuko Udalak Zuhaitz Eguna antolatu du eta, ohi duen moduan, aurreko urtean jaiotako umeak eta haien familiak gonbidatu dituzte ekimenean parte hartzera. Guztira, hamahiru familiek jaso dute udalaren gonbidapena.

Hitzordua 12:30ean Arbizuko plazan jarri dute eta handik San Joan ermitarantz joko dute. Eraikinaren parean dagoen belardiak urtero zuhaitz berriak jasotzen ditu, eta aurten ere hala izanen da. Udalak zuloak eginak utziko ditu eta han hurrizak sartu eta lurra zainetan botatzea izanen da parte hartzaileen egitekoa. Despeditzeko, aatea izanen da. Urtetik urtera itxura ederragoa du San Joan inguruak.

Gasoleo A ibilgailuentzat
Gasoleo B nekazaritzarako
eta kalefakziorako

www.iparoil.com

IPAR OIL



IPAR OIL

GASOLEO BANAKETA

Sakanako bailara

Tel. 620 143430

Langraiz Oka	Santurtzi	Urnieta
Los Llanos industriagunea 01230 Langraiz Oka (Araba) 945 371358 • 648 250975	Aparkabisa industriagunea 48980 Santurtzi (Bizkaia) 945 371358 • 686 525761	Erratzu industriagunea - 201 20130 Urnieta (Gipuzkoa) 943 330311 • 646 716256



Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuko langileak Irurtzunen papera eta kartoia jasotzen asteartean.

Sentsibilizatu, ongi bereizteko

Sakanako Mankomunitateak ibarreko etxe guztietara hondakin birziklapena eta kudeaketa egokia egiten laguntzeko gida banatu berri du. Komunikazio kanpaina zabalago baten zati da. Haren baitan bi eztabaida foro sortu dituzte

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Nafarroan hondakin gehien birziklatzen duen eskualdea Sakanana da. Horregatik, sakandarrak zoriondu ditu Sakanako Mankomunitateak. Hala ere, ibarreko erakundeak "hondakindegian bukatzen duten berrerabilgarrien eta birziklagarrien kopurua murrizteko lanean jarraitu beharra" dagoela azaldu du. Horretarako, "ezinbestekoa da errefusa murriztea hondakinak behar bezala bereiziz". Horretan eta hondakin kudeaketa egokia egiten laguntzeko Mank-ek 10.600 gida banatu berri ditu, hau da, Hondakin Zerbitzuan altan emandako guztiei. Gida Nafarroako Hondakin Funtzak emandako dirulaguntzarekin ordaindu du.

Sakandarrek etxetan jaso dugun gida hori Hondakin Zerbitzuaren sentsibilizazio kanpaina baten zati bat da. Gidarekin batera,

zerbitzuak hainbat hondakin ibilbideak edo zikloak azaltzen dituzten kartelak egin ditu toki publikoetan jartzeko. Hezitzaileek argitu dutenez, "hondakin bidea etxeetan hasten da eta, horregatik, agerrarazi nahi izan dugu hainbat gai nola bereizi behar diren, bakoitzak bere bidea har dezan. Beti ere gogoratu Hondakin onena, sortzen ez dena dela". Bilketa kamioietan ere sakandarrei eskerrak emanez lonak jarriko dituzte.

Komunikazio kanpainaren bidez, "hondakinak bereizterakoan herritarrek jartzen dituzten

HONDAKINAK BILTZEKO 38 IBILBIDE EGITEN DITUZTE SEI EGUNETAN HAMABOST LANGILEK

trabak, dituzten sineskerak eta pertzepzioak hobetu" nahi dituzte. Azken finean, helburua baita "hondakinak bereizketarako sakandarrek dituzten barrerak haustea. Hondakinak zein bide egiten duten jakinez, jendeak ongi bereiztera animatu, gaikako bilketan %5eko igoera izatea bilatzen dugu" azaldu dute hezitzaileek.

Landuko dituztenak

Mank-ek kanpaina horren bidez hiru gai landu nahi ditu. Batetik, hondakinak gaika ez biltzeak dakartzan eragozpenak azaldu nahi dizkie sakandarrei. "Berrerabili eta birzikla daitezkeen gai asko lurperatzen ari gara, horrek dakarren kutsadurarekin. Eta hondakindegietan lixibiatuak eta klima aldaketa eragiten duten gasak sortzen dira". Hezitzaileek jakinarazi dutenez, "egoki berei-

zi ez diren hondakinak Tuteraraino garraiatu behar dira, El Culebrete hondakindegia eta biometanizazio plantara; gehiena lurperatua izateko".

Hondakin Zerbitzuko hezitzaileek gogorarazi dutenez, Nafarroako Hondakin Planak eta Europako Batzordeak ezarri dute gaikako bilketa %65ekoa izan behar duela. Gaur egun, hondakin bilketarako hiru sistema daude Sakanan, eta birziklatzen eta berrerabiltzen diren hondakin kopurua nabarmen aldatzen da bilketa sistema batetik bestera. Atez atekoan (Uhartarakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Iturmen, Urdiain eta Olatzagutia) hondakin %75 gaika biltzen da eta %25 errefusa da. Sistema mistoa (Arakil, Irañeta, Arruazu, Ergoiena, Lizarragabengoa eta Ziordia) duten herrietan gaikako bilketa %60koa da eta errefusa %40. Eta Irurtzunen (edukiontziak eta auzokonpostagailuak) eta Altsasun (edukiontziak eta bosgarren edukiontzia) gaikako bilketa %40koa da eta errefusa %60koa. "Gaikako bilketa asko hobetu beharra daukagu, batez ere Altsasun eta Irurtzunen. Eta horregatik azaleratu dugu argi eta garbi gidan gai bakoitzean zein hondakin joan behar duten eta zein bide egiten duten. Jendea gaika bereiztera animatu dadin, ez baita dena batera biltzen. Horrela errefusa murriztuko dugu denon artean" azaldu dute teknikariek.

Horrekin batera, hondakinak ongi bereizteak eta gaikako bilketak dakartzan onurak ere nabarmendu dituzte: "errefusa gutxiago sortzen dugu, gutxiago kutsatzen dugu eta birziklatzearen eta berrerabilpenaren alde egiten dugu". Mank-etik azaldu dutenez, ezarritako %65eko helburura iristeko pauso bat izan daiteke materia organikoaren gaikako bilketa ongi egitea. Izan ere, Sakanan sortzen diren hondakin %40 materia organikoa da. Hura konpostatzailean, auzo-konpostatzailean edo bosgarren edukiontzian utzi behar da; bestetik, atez ate

HONDAKIN BEREZIAK JASOTZEN DIRA LAU GARBIGUNEETAN: MUGIKORRA, ARBIZU, ALTSASU ETA ZIORDIA

sistema dagoen herrietan astelehen eta ostegunetan atera behar da.

Azkenik, nabarmendu dute "hondakin kudeaketak lana sortzen" duela: "zerbitzua lan izugarria egiten ari da ahalik eta hondakin gutxien errefusa bezala bildu eta lurperatzeko. Horretarako gaikako bilketaren alde egiten ari gara hondakin mota bakoitzak bere bidea egin dezan. Zerbitzua bermatzeko 23 langile ari gara egunero lanean".

Inkesta eta eztabaida foroak

Hondakin Zerbitzuak Aztiker Ikerlanean bidez telefono bidezko deliberazio inkesta egin die 300 sakandarrei. Haiei honako gaien inguruan galdetu diete: bilketa sistemen inguruko iritzia, gaikako bilketari buruzko iritzia, hondakinak bereizterakoan dituzten oztopoak, gaikako bilketaren onurak ezagutzen ote dituzten eta zein hobekuntza proposatzen dituzten.

Hezitzaileek azaldu dutenez, "inkesta horren emaitzak kontuan hartuta gidaren edukiak egokitu ditugu. Izan ere, inkestatuetako askok hondakinak egiten duten bidea ezagutzeko beharra azaleratu dute. Horregatik, saiatu gara gidan hondakin mota bakoitzak zein bide egiten duen agerrarazten".

Inkestari jarraipena emanez, eztabaida foroak antolatu dituzte. "Taldea horietan hondakin kudeaketari buruz hausnartuko da, bilketa sistema desberdinetarako eta komunikazio aldetik hobekuntzak proposatzeko". Oraingoz bi talde osatu dira. Batean bilketa sistema desberdinak dituzten sakandarrek biltzen dira eta, bestean, altsasuarrak. Taldeetan hainbat adinetako gizon eta emakumeen parte hartzea bermatzen saiatu da Aztiker eta Sakanako Mankomunitatea. Sakana Taldea Lakuntzako kultur etxean elkartu zen atzo arratsaldean eta astelehenean Altsasukoa Iortia Kultur Gunean 18:30etan. Altsasuko taldea osatzeak emakumeak eta gazteak (18-29 urte bitartekoak) parte hartzea animatu dituzte. Mankomunitatearen sare sozialetan. Talde hauetan hondakin kudeaketari buruz hausnartuko da, bilketa sistema desberdinetarako eta komunikazio aldetik hobekuntzak proposatzeko.

Behar bezalako osasun sistema publikoa nahi dute

Bakaikun bilkura baten bidez adierazi zioten eskaera gobernuari larunbatean

BAKAIKU

Nafarroan dagoen osasun sistema publikoa "hondatzen" ari dela, eta haren aldeko defentsa egitera hots egin zuten bakaikuarrek larunbatean. Udaletxearen eraikin berean dagoen mediku kontuslategia inguratuz osasun sistemaren aldeko defentsa irudikatu zuten. Elkarretaratzean izan zierenek gaztigatu zutenez, "pandemiaren ondorioz, egoera larriagotu da. Langileen artean prekarietatea oso nabaria da, batez ere osasun langilerik ez dagoelako eta gehiegizko lan karga dutelako". Ondorioz herritarrek behar bezalako arreta ez dutela jasozten azpimarratu zuten bakaikuarrek.

Hori guztia dela eta, biztanleriari ez zaio behar bezalako arreta ematen, esaterako, "Bakaikuko osasun kontsultategiko arreta egunak murriztu dira". Horregatik, larunbatean elkartu ziren bakaikuarrek exijitu zuten herriko "kotsultategiak pandemia aurretik zuen jarduera berreskuratu eta indartzea". Horrekin batera honako beste eskaerak egin zituzten bakaikuarrek larunbateko elkarretaratzean: lehen arreta osasun zerbitzua indartzea, aurrez aurreko presentzia handitzea, osasun sistema publiko indartsua izateko behar den dirua bideratzea eta dauden osasun langileak zaindu eta langile kopurua handitu.

Aldi berean, larunbatean protesta bilkuran elkartu ziren bakaikuarrek nabarmendu zuten, osasungintza "negozio pribatuak ez dira diru publikoarekin finantzatu behar". Bilkuran izan zirenen iritziz, "ezin dugu osasun sistema publikoa erortzen utzi. Gure gizarte ongizateko oinarri garrantzitsuenetako bat baita". Herritar, eragile eta instituzioei horren alde egitera hots egin zituzten.



Igandeko ekimeneko antolatzaileak mustuko den aniztasunaren oka jolasarekin.

"Hizkuntzekin jolasteko aukera izanen dugu"

BEGOÑA ZESTAU BARAIBAR KULTURARTEKOTASUN TEKNIKARIA

Ama hizkuntzak eta Elkartasun ekimena hartuko du Irurtzango plazak igandean 12:00etatik 14:00etara. Anitzartean zerbitzuak sakandarrak gonbidatu ditu

IRURTZUN

Ama hizkuntzak ezagutu, eta haiekin jolasteko aukera eman du Irurtzango ekimenak. Gainera, erabiltzen ez diren joko eta jostailuak eramanez elkartasunerako aukera ere izanen da.

Nolaz sortu da ekimen hori?

Ama Hizkuntzen Nazioarteko Eguna astelehenean ospatuko da. Marko hori izanda eta Sakanan zein hizkuntza aniztasuna dagoen ikusita, ama hizkuntzen presentzia plazaratzea pentsatu genuen. Bezpera, igandea izanik, ekimena Irurtzunen egiteko ego-kia zela ikusi genuen.

Badakizue ibarrean zenbat hizkuntza dauden?

Ez dugu lortu denak zenbatzea, eta, baten bat faltan izanen dudanez, nahiago du zifrarik ez esatea. Baina dezente daude, egia da. Gero eta anitzago, gero eta aberatsago.

Zergatik ama hizkuntzaren eguna?

Amarengandik etxean jasotzen, ikasten dugun hizkuntza da ama hizkuntza. Ez da hori ikastea bakarrik. Horren bidez, hari horrekin, mundua ezagutu eta ulertzen dugu. Horregatik, zerbitzuan ikusten genuen aukera ona, polita eta errespetuzkoa zela ikusten genuen, beste ama hizkuntza mordo bat kontuan hartzekoa. Hori guztia uztartzeko kalera ateratzea pentsatu genuen. Oraingoan Irurtzunen, baina Sakanan dagoen hizkuntza aniztasunaren dena da.

Nola aterako da hizkuntza aniztasun hori kalera?

Ekimen ludikoa izanen da. Ama hizkuntza batzuk uztartu nahi

"DAGOEN HIZKUNTZA ANIZTASUNA IKUSITA, AMA HIZKUNTZEN PRESENTZIA PLAZARATUKO DUGU"

ditugu. Ama hizkuntzekin jolasen arituko gara: hizkuntzen dominoaren jolasa, hizkuntzekin bikoteak egitekoa, hizkuntzen jolas elektronikoa... Eta zerbitzuan sortutako aniztasunaren okaren jolasa mustuko dugu. Hizkuntzekin jolasteko aukera izanen da. Horretaz aparte, mun-

duko jolasekin gozatzeko aukera izanen da. Eta hizkuntzak direla medio, elkartasunerako tartea izanen da.

Euskarak tokirik izanen du?

Jakina. Euskara Zerbitzua txokoan munduko hizkuntzak, hizkuntza aniztasuna, hizkuntzen tamaina eta hizkuntza txikiak eta halakoak landuko dituzte. Gainera, euskara lantzeko jolasak ere izanen dira: berbaxerka eta beste batzuk.

Jolasa. Haurrendako da edo sakandarrak guztiendako?

Sakandarrak txiki eta handiendako, denendako da. Taldeka, banaka, familian jolasteko aukera izanen da. Betiko jolasetara jolasteko aukera eta gunea ere izanen dira.

Elkartasuna nola landu duzue?

Aspaldiko urteetan Irurtzunen joko eta jolasen trukea egiten zen. Pandemia aurretik hori aldatu eta familian jolasteko jolas kooperatiboaren astea egin genuen. Pandemiak dena gelditu zuen.

Oraindik eguberrietatik ez oso urrun gaudenez, pentsatu genuen etxean egoera onean eta erabiltzen ez ditugun jolasak eta jostailuak izan ditzakegula. Eta gure inguruan halakorik jasotzen ez duen haurrak egon daitezke. Jolasari garenaz, elkartasun tartea erraztu eta aukera hori eman nahi diogu hurbiltzen den guztiari. Iruñerriko Elkarririk Laguntza elkartearekin elkarlanean ari gara azken sei bat urtetan. Igandean jendeak erabiltzen ez dituen jolas eta jostailuak plazara ekarri horiek Iruñera bideratuko dira, han banatzeko.

Anitzartean plazaratu bueltan da.

Bai, behar da. Premia dago, gogoa. Ikusiko da zer erantzun dagoen. Horregatik da xumea, ordu pare batekoa. Musikaz giroa egonen da. Berriz aniztasuna kalera ateratzea da helburuetako bat.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN
BERRI ASTEAZKENEN EGUERDIA
BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 /
kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 18

ALTSASU Osasungintza publikoa defenda dezagun. Lan baldintzak hobetu manifestaziora joateko kotxe kedada.
17:45ean, Iortian.

ALTSASU Gazte agenda: Escape room.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

LARUNBATA 19

ALTSASU M8. Emakume langileok askatzeko sozialismoa eraiki! jardunaldia. Herri apainketa, bazkaria, *Oh gu hemen* bigarren saioa eta kafe tertulia.
Itaiak antolatuta.
10:00etatik aurrera, gaztetxean.

ALTSASU Gazte agenda: Twister.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ALTSASU Genoma B dantza eta zirkua ikuskizuna.
19:30ean, Iortia kultur gunean.

ETXARRI ARANATZ Etxarri Aranazko gazte asanbladaren eta gaztetxearen urteurrena: Aleria Gorria eta Nafarroa 1512 taldeen kontzertua.
Sarrerak agortuta.
23:00etan, gaztetxean.

IGANDEA 20

IRURTZUN Iratxo elkartearen irteera: Imozko itzulia.
08:00etan, elkartetik.

ALTSASU Altsasuko Mendigoizaleak taldearen irteera: Altsasu – Arbotones – Mikeletes (Salsamendi) – Ataun, bide zaharretatik.
09:00etan, egoitzan.

IRURTZUN Ama hizkuntzak eta elkartasuna jardunaldia.
Sakanako Mankomunitateko Anitzartean zerbitzuak, Irurtzungo Eskualdeko Gizarte zerbitzuak, Atakondoa eskolako guraso elkarteak eta Itxipuru taldeak antolatuta, Irurtzungo udalaren laguntzarekin.
12:00etatik 14:00etara, plazan.

ARBIZU Zuhaitzaren eguna: 2021. urtean jaiotako haurren familiek zuhaitz bana landatuko dute.
12:30ean, plazan.

ALTSASU Osasun arreta duinaren aldeko manifestazioa.
EHBilduk antolatuta.
13:00etan, Foru plazan.

OLATZAGUTIA Oihan Vegaren Ipuin dantza familiarreko ikuskizuna.
17:00etan, kultur etxean.

IRURTZUN Luze edo motz Idoia Torregarai eta Mirari Martirena umoregileen bakarriketa saioa.
19:00etan, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Lander Garroren Tipularen sehaska kanta film dokumentalaren

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

No somos nada gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Ostirala 18: 19:00
Igandea 20: 19:30

El método Williams gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Osteguna 24: 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO TXIKIAN

El pacto zineforum filmaren emanaldia
Igandea 20: 19:30

En un muelle de Normandia zineforum filmaren emanaldia
Osteguna 24: 19:00

emanaldia. Jon Gurutz Artola etxarriarraren egoeraren inguruko informazioa emanen dute.
19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Euskal preso eta iheslariak etxera elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 21

ALTSASU Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea.
12:00etan, Zumalakarregi plazan.

ALTSASU Hondakinaren kudeaketari buruz hausnarketa. 18 eta 29 urte bitarteko edo emakume sakandarrak.
18:30ean, Iortia kultur gunean.

ASTEARTEA 22

ETXARRI ARANATZ Nano ipuinak egiten ikasteko Yolanda Arrietaren lantegia.
Euskara ikasleendako eta Mintzakideendako.
09:30etik 11:00etara, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Nano ipuinak egiten ikasteko Yolanda Arrietaren lantegia.
Euskara ikasleendako eta Mintzakideendako.
19:00etatik 20:30era, kultur etxean.

OSTEGUNA 24

ETXARRI ARANATZ Garikunde.
18:00etan, plazan.




OLAIZTI Etxepare Saria irabazi duten albumen azalen erakusketa.
Nafarroako Gobernuko euskara zerbitzuek antolatuta.
Martxoaren 4ra arte. Liburutegian.




ALTSASU Begirada ezberdin bat Unai Beroiz fotokazetariaren argazki erakusketa.
Pobreziaren eta bazterkeriaren kontrako Nafarroako sareak eta Sakanako Mankomunitateko Anitzartean zerbitzuak antolatuta.
Otsailaren 20ra arte. Astelehenetik ostiralera 17:00etatik 20:00etara. Iortia kultur guneko erakusketa aretoa.

ZORION AGURRAK



Jontxu
Zorionak Jontxu!
Maite zaitugu.



Jontxu
Zorionak txapeldun!
Oso ongi pasa, zure Altsasuko lagunen partez. Muxu handi bat!!



IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

SALDU

Pisua bajearekin salgai: Etxarri Aranazko Santakitz kalean. Interesatuak deitu 669 156 117 tfnora.

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZA

Uharte Arakilgo Udalak langabetua kontratatuko du: 51 urtetik gorako eta Nafar-Lansare enplegu zerbitzuan izena emana duen langabetu bat, sei hilabeterako, kontratatu nahi du udal eraikin, bide, kale garbiketa lanak nola zerbitzu anitzeko langileei laguntza lanak egiteko. Lanpostu horretan interesa duenak Altsasun dagoen Nafarroako Lan Zerbitzuko bulegoan ema behar du izena 2022ko otsailaren 18ko 12:00ak baino lehen.

Salto! Gazte topaketetan begiraleak eta sukaldariak behar dira: Interesa dutenek beraien curriculum martxoaren 4a baino lehen bidali beharko arnagunea@uema.eus e-posta helbidera. Apirilaren 15erako hautatuei erabakia jakinaraziko zaie. UEMA-k kontratatuko ditu langile hauek.

Berto Udalekuetarako hezitzaileen izen-ematea: Otsailaren 7tik 21era arte zabalik egongo da Bertozale Elkartearen webgunean. Begiraleak, sukaldariak, zuzendariak eta begirale praktikak egiteko aukera dago, ardura bakoitzak bere izen emate orria izango du. Amaiurren, Irañetan, Larraulen eta Zuhatzan izango dira egonaldia, uztailean gauzatuko dira. Informazio gehiago www.bertozale.eus web orrian

IKASTAROA

Irrurtzunen Spinning ikastaroak: Ikasturteko

bigarren lauhileko hone-tan izena eman nahi baduzu begiralearekin berretsi beharko duzu eskola ordutegietan. Orduetgia astelehen eta asteazketan 9:30ean, 19:00etan edo 20:00etan, edo astearte eta ostegunetan 19:30ean edo 20:30ean. Otsailaren 14tik maiatzaren 31ra ate izango dira klaseak. Astean bi egun 110 euro astean saio bat 70 euro. Matrikularen diru kopurua Sedenaren kontu zbkian sartu behar da: ES30 2100 9141 1902 0007 1611.

OHARRAK

Konposta eskuragai: Sakanako Mankomunitatearen Hondakin Zerbitzuak jakinarazi du edonor har dezakeela konpost Arbizuko UtzubarEKOguneko konpost plantatik. Astegunetan 08:00etatik 15:00etara joan daiteke. Nondik hartu jakiteko zerbitzuaren bulegotik pasa behar da. Zakuak eramatea gomendatzen da. Konpost gurdikadak ere eramane daitezke.

Etzerako egur loteak eskatzeko epea: Altsasuarrek udalari etzerako egur loteak espatzeko epea martxoaren 4an despedituko da. Horretarako, 948 012 012 telefono zenbakira hots egin behar da. Familia unitate bakoitzak eskaera bat egin dezake. Gehienez 150 lote banatuko ditu. Eskaera onartua izanez gero 20 euro ordaindu beharko dira.

Ehiza barrutia eratzekeo proiektua: Altsasuko Udalak udalerrian ehiza barrutia sortzea erabaki du, espediente udalartean dago ikusgai. Barrutian beraien lurraz sartzeari espresuki uko

egiteko epea martxoaren 8ra arte dago.

Herri ihoterako narruak: Zamar handi edo zamar txiki gisa moztortzeko ardi narrua nahi dutenek Olatzagutiko udaletxetik pasa daitezke hilaren 24ra arte, 10:00etatik 14:00etara. 13 urtetik gorakoek izanen dute lehentasuna. Narrua hartzen duen bakoitzak 20 euroko fidantza jarri beharko du.

Uharteko Arakilgo Pausoka haur eskola: Otsailaren 14tik 18ra plazen erreserba eginen da.

Salto! Gazte topaketetan izena emateko epea zabalik: Sakanako Arbizu eta Etxarri dira UEMA-ko kide, beraz, herri hauetako 14 - 18 (2044 eta 2007 artean jaiotakoak) urte bitarteko gazteek izena eman ahaliko dute martxoaren 31ra arte. Aisialdiarekin eta euskal kulturarekin lotutako egitarau erakargarriarekin, gazteak sentzibilizatu eta ahalduz kolektiborako pausoa eman nahi da. Prezioa 95 euro. Izena emateko 943 816 699 tfnora deitu edo hezkontza@uema.eus helbidera idatzi. Informazio gehiago www.uema.eus web orrian.

Siriara bidaltzeko mantabilketa: Gobernu kanpoko Ayuda Contenedores erakundeak Siriara Olanazko dendetan bizi diren siriarendako mantak bil-tzen hasi du. Otsaileko asteazketan, 10:00etatik 13:00erara, mantak jasoko dituzte Altsasuko Frontoi zeharbideko 14. zenbakiko bajearen. Etxarri Aranatzan, otsaileko astelehen guztietan, boluntarioen gunean, Kultur etxeko atzeko alboan, 17:00etatik 18:30ra

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburrak.eus

OROIGARRIA

Mari Carmen Jiménez Sequera

I. urteurrena



Eman zenigun alaitasun eta maitasuna beti egongo da gurekin.

Zure familia

JAIOTZAK

- **Abdala Embarek Brahim**, otsailaren 5ean Olaztin
- **Yaira Muñoz Lopez**, otsailaren 9an Altsasun
- **Nayeli Abajo Castro**, otsailaren 10ean Izurdiagan


HERIOTZAK

- **Maria Pilar Albiztur Agirre**, otsailaren 8an Olaztin
- **Felisa Imaz Ruiz de Arbuló**, otsailaren 12an Olaztin
- **Sara Fuente Domingo**, otsailaren 14an Etxarri Aranatzan
- **Pilar Sanchez Gomez**, otsailaren 15ean Irurtzunen


INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 18



Larunbata, 19



Igandea, 20



Astelehena, 21



IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXE ez du argitaratzen diren iragarkiaren ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarki Guaixe paperean eta guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo.eskelak@guaixe.eus

- Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 € prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN AGÜ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- ✉ @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es



Juanjo Erdozia, Sakanako Aizkora Eskolako ikasle baten lana jarraitzen.

Etorkizuneko aizkolariei trebatzeko gonbita

AIZKORA Sakanako Aizkora Eskolan izena ematea zabaldu du Mankomunitateak, martxoaren 2ra arte

Beste behin, eta badira urte bazuk, 18 urte inguru, Sakanako Aizkora Eskolak bere ateak zabalduko ditu. Martxoaren 8an abiatuko dira aurtengo eskolak, maiatzaren 6ra arte, eta aizkoren sekretuak erakusteko prest izanen dira Juanito eta Juanjo Erdozia aita-semea. Hain zuzen ere erdoziatarren borda izango da Sakanako Aizkora Eskolaren egoitza, Etxarri Aranatzen. Asteartero eta ostiralero 19:30etik 20:30era ariko dira lanean.

10-20 urte bitartekoak

Sakanako Aizkora Eskola 10 urtetik 20 urteko gaztetxoek dago zuzenduta. Tokia egonez gero, helduagoak hartuko lirateke. Eskolak primerako harrera duenez, izena ematea lehenbailehen egitea aholkatu dute Mank-eko Kirol Zerbitzutik. Martxoaren 2a baino lehen eman behar da izena, Kirol Zerbitzuan bertan (948 464 866). Prezioa 55 eurokoa da. Sakanako Aizkora Eskolarekin aizkoran

aritu nahi duten gazteei herri kirol horretan trebatzeko baliabideak eta materiala eskaini nahi die Mank-eko Kirol Zerbitzuak.

Euskal Herriko eskola bakarra

Juanito Erdoziak azaroan Irañetan antolatutako Sakanako Herri Kirol egunean azaldu zuenez, Sakanako Aizkora Eskolan 15 urte luze daramatza, "oso gustura". "Neska-mutikoek ilusio handia dute eta gustura etortzen dira eskolara. Euskal Herrian aizkora eskola bakarra dago, eta guk ematen dugu. Euskal Herrian ez dago beste eskolarik. Kanpotik eskolara etorri nahi dute, baina ezin da. Ez dago tokirik. Berez, gehienez hamabi ikasletan dugu. Hamar urtetik hogeitaz bitartean hamabi aizkolarik hartzen ditugu, baino aurreko urtean hamabost izan ziren. Bertakoak zirenez, pena ematen zigun kanpoan geratzea eta sartu genituen. Baina gehienez hamabost, bestela lan handia baita" nabarmendu zuen.



Juanito Erdozia, ikasleak egiten duen lanari adi.

"Hau, Zallakoa, da benetako finala, irabazi beharrekoa"

JOSEBA EZKURDIA GALARRAGA PILOTARIA

PILOTA Ezkurdia eta Tolosa Binakako finalerdietarako play-offetarako sailkatuko dira bihar, larunbata, Urrutikoetxeari eta Arangureni irabazten badiete. Sentsazioak onak dira

Maider Betelu Ganboa ARBIZU

Orain arteko Binakako Txapelketako estuenean, guztia dago erabakitzeke. Sailkapeneko behealdean hiru bikote daude launa puntura berdinduta. Joseba Ezkurdia eta Xabier Tolosa dira horietako bat, sailkapenean seigarren. Larunbatean, Zallan, Mikel Urrutikoetxeari eta Aitor Aranguren Errastiri irabazten badiete, zuzenean sailkatuko dira finalerdietako play-offetarako. Entrenatzeko Zallara bidean harrapatu ditugu.

Larunbatean irabaziz gero, Binakako finalerdietako play-offetara.

Joseba: Horrela ikusita erraza ematen du: larunbatean irabazi eta listo, lanak eginda. Baina zailena irabaztea da. Partida zaila dugu eta ea zer gertatzen den, baina egia da azkeneko astetan gure joko maila igo dela, hobeto ari gara eta borroka horretan sartu gara. Txapelketa hasieran hau nahi genuen, azkeneko partidara bizirik ailegatzeko, gure esku iristea, eta pozik gaude.

Txapelketako lehendabiziko txanpan emaitzek ez zuten laguntzen. Zu ere ez zeunden zure onenean. Bikote gisa ahalmena zutenen, baina zer gertatzen zitzaizuen?

J.: Hasieran ez genuela gure maila eman. Aurreneko itzulia puntu batekin bukatu genuen eta gauzak oso zail ikusten ziren. Ez geunden momenturik hoberean; ni ez nabilen guztiz

gustura. Gero hobeki hasi ginen jokatzen, eta gure maila hobetzen hasi zen. Bigarren itzulia Zabaletaren kontra partida ona jokatu genuen Labriten, Altunaren kontra irabazi genuen Labriten eta Peñaren kontra gailendu ginen Labriten. Puntu horiek oso garrantzitsuak izan ziren, eta zer esanik ez larunbatean Jakaren eta Mariezkurrenaren kontra Labriten lortutako azkeneko puntua, bete betean play-offetarako borrokan sartu gintuena. Bigarren itzulia partida onak egin ditugu eta galdutakoetan ere ongi lehiatu ginen. Sentsazioak onak dira eta horri eutsi diogu. Horregatik gaude bizirik.

Zer ote du Labritek?

J.: Frontoi oso ona da, bai niretako eta baita Xabirendako ere. Frontoi noblea da, publikoa ere ona, gainean dagoena, eta bertan jokatzea gozamena da. Labriten oso gustura sentitzen naiz, etxean bezala. Niretako frontoirik hobereana da, eta bigarren itzuli honetan frontoiak lagundu digu. **Larunbateko Jakaren eta Mariezkurrenaren kontrako partidaren Ezkurdia eta Tolosa onenak ikusi genituela dio katedrak. Hala sentitzen duzu?**

J.: Hasieratik pilota gosez nengoen, partida irabazteko amorrazio horrekin, oso kontzentratuta, partidatik inongo momentuan atera gabe, eta sentsazio oso onekin. Partidara motibatuta

joan ginen. Ikusten genuen irabaziz gero borrokan sartuta egongo ginela berriz, gure esku zegoela, eta horrek ere laguntzen du. Txapelketako partidarik onena egin nuen, azkenaldian egin dudana hobereenetakoa.

Tolosak errebotetik erantzun zuen pilotakada hura ikusgarria izan zen. Esku pilotara beharrean palara jokatzen ari zinetela zirudien.

J.: Bai, ikusgarria.

Xabier: (Kar, kar...) Kasualitatea izan zen, gutxitan ikusten dira halako jokaldiak. Egia esan zortetik pixka bat izan nuen. Jarraian bigarrena etorri zenean ikusi zen hori, bigarrena bueltatzeko ez bainuen gaitasunik izan.

Bigarrena itzuliko bazenu...

X.: Ikaragarria litzateke. Alde horretatik pena, hemendik aurrera ere ikusteko ere politikak izaten baitira halako jokaldiak. Berriz ere kostako da halakoren bat ikustea.

Zer moduzkoa da Joseba bikote gisa?

X.: Oso ona. Oso kontentu nago berarekin, kantxan eta kantxatik kanpo ere asko ari baitzait laguntzen. Oso gustura nabil berarekin batetik bestera.

Hasieratik nabaritzen zitzaizuen konplizitate hori.

J.: Bai, Xabierekin ongi eramatea erraza da. Baita kantxa barruan ulertzea ere, pilota oso ongi ulertzen duelako. Hasieran ni ez nengoen momenturik onenean, Xabierekin aritzen nintzen lehen



Joseba Ezkurdiak dioenez azken asteetan bera eta Xabier Tolosa disfrutatzen ari dira eta sentsazio onak dituzte. ASPE

txapelketa zen, guztia elkartu zen baina bosgarren jardunalditik hobeto lehiatzen hasi ginen eta pena dugu beste punturen bat gehiago lortzeko aukera izan genuelako. Adibidez, Jakaren kontra gantxo bat lurrera bota nuen 20 berdinekoan... lehen itzulian xehetasun horiek markatu gintuzten.

Ligaxkako azken partidaren Urrutikoetxea eta Aranguren dituzue arerio. Biek launa puntu dituzue, baina zuek irabaztetik zatozte, eta beraiek, aldiz, galtzetik. Hori narbituko da?

J.: Ikusiko da, baina guretako orain arteko benetako finala hau da, larunbateko partida, irabazi beharrekoa. Orain arte egindakoak bizirik jarraitzeko balio izan digu, partida honetara bizirik eta sentsazio onekin iristeko. Zallan partida zaila eta polita dugu jokatzeko, eta buru-belarri gaude partida ongi prestatzen. Gure jokoa ongi egitera aterako gara, eta ea inertziak laguntzen digun. Azkeneko aste hauetan disfrutatzen ari gara, eta hori da garrantzitsuena, %100 ongi prestatzea, gure eskutan dagoen guztia ongi egitea eta frontoian dena ematea.

Orain arteko baina presio handiagoa duzue larunbateko partida garrantzitsuari begira?

J.: Bai. Azkenean presioa eta nerbio puntu hori handiagoa da. Baina polita da aste guztian bar-

na sentitzen duzun urduritasun puntu hori sentitzea. Sentipen hori ona da. Azkenean horretarako gaude, eta hori noizbait sentitzen ez badugu, pilotaren munduan alferrik gaudenaren seinale. Presioari eusten jakin behar da, eta larunbaterako oso gogotsu gaude.

Zein izango da zuen estrategia?

J.: Urrutikoetxea oso momentu onean dago, tantoa erraz bukatzen ari da eta ezker gantxoarekin jokoan asko ari da parte hartzen. Aranguren ere txapelketa ona egiten ari da, pilota guztiak erantzun egiten ditu. Euren jokoa alde batera utzita, gu partida serioa egitera aterako gara eta gure jokoa zentratu beharra dugu: nola nahi dugun jokatu, zein jokorekin egin ahal diegun min gehien... gurea egiten saiatu beharra dugu, horrela izango baitugu partida aurrera ateratzeko aukera.

Noizbatit Zallan jokatu al duzue aurretik?

J.: Nik lau-pabost alditan jokatu izan dut, baina Xabierren aurreneko aldia da. Jokatutako partida guztiak irabazi izan ditut, baina ez zait gehiegi ere gustatzen. Lurra lehorra da, pilota azkar gastatzen du eta lurrean botea hartzen du, baina ez da frontoi txarra. Ez dago kexarik. Jokatzeko frontoi ona da, nahiz eta pilotak nahi baino azkarrago gastatu.

Txapelketa ia guztian azkenak izan eta gero play-offetara sailkatzea handia litzateke.

J.: Txapelketa aurkeztu zenean lehen helburua play-offetara sailkatzeko borrokan sartzea zen, eta ikusita txapelketan nola ibili garen, azkeneko postuan eta beti sufritzen... orain sari polita litzateke play-offetan sartu eta partida bakarrean erabakitzea finalerdietara sartuko garen ala ez.

X.: Bai, ikusita txapelketa guztia nola joan den izugarria litzateke, baina orain larunbateko partidaren zentratu beharra dugu, hori irabazi gabe ez baitago play-offik. Larunbaterako ahal den hobekien prestatu eta ea irabazita klasifikatzeko aukera dugun.

Aurtengo Binakakoa txapelketa ederra izaten ari da. Emozioak azkenera arte iraungo du, ligaxkako azkeneko jardunaldian, asteburu honetan erabakiko baita guztia: zein bi biko sailkatuko diren zuzenean finalerdietara, eta zein bikotek jokatuko dituzte play-offak. Pilotazaleendako gozamen hutsa da, baina zuendako?

J.: Txapelketa oso polita izaten ari da, formatua aldatu zutenetik nik uste sekula ez dela gertatu azken jardunaldian guztia erabakitzeko egotea. Politu da publikoarendako, jendearendako eta baita guretako ere, astero beti zerbait dagoelako jokoan eta horrek astea beste modu batean

Azkenean misterioa argituko da

Asteburuan Binakako ligaxkako azken jardunaldia jokatu da eta katedra zoratzeko moduan dago, guztia jokoan dagoelako. Txapelketa bi bloketan banatuta dago –bi txapelketa txiki txapelketa handi baten barruan–, eta jokoan dauden lau partidak erabakigarriak dira. Guztiak. Diario de Noticiaseko Igor G. Vico kazetariaren titularrak modu ezin hobean laburtzen du egoera: "Zazpi bihotzeko eta ziurtasun bakar bat". Egoera halakoa baita.

Sailkapena oso estu dago. Hiru bikok bederatzina puntu dituzte: Irribarria-Rezustak, Elezkano-Zabaletak eta Altuna-Martijak. Laso eta Imaz laugarren dira (8 puntu), Peña II.a-Albisu bosgarren (5 puntu), eta Ezkurdia-Tolosak, Urrutikoetxea-Aranguren eta Jaka-Mariezurrenarenak ixten dute sailkapena, launa punturekin. Beraz, kalkulagailuak hartu eta konbinazio posible guztiak aztertzeko unea da.



Martija eta Zabaleta. ARTXIBOA, ASPE

Elezkano II.ak eta Zabaletak Jaka-Mariezurrenarenak dituzte aurkari ostiralean Azkoitian. Lehen bi postuetan sailkatu eta zuzenean finalerdietarako txartela lortzeko, Elezkanok eta Zabaletak partida irabazi beharko dute eta eurekin puntutara berdinduta dauden Irribarria-Rezustaren eta Altuna-Martijaren emaitzen zain egon beharko dute.

Larunbatean, Zallan, Ezkurdia eta Tolosa Urrutikoetxearen eta Arangurenaren kontra lehiatuko dira. Irabaziz gero, finalerdietarako play-offetara sailkatuko dira, baina galduz gero, txapelketatik kanpo.

Irribarria eta Rezusta Peña II.aren eta Albisuren kontra ariko dira larunbatean Labriten. Liderrek irabaztea nahikoa dute zuzenean finalerdietara sailkatzeko. Galduz gero, arerioen emaitzen zain geratu beharko lukete. Jardunaldia bukatzeko, Altuna III.aren eta Martijaren eta Lasoren eta Imazen arteko partida hartuko du igandean Eibarko pilotaren katedralak. Irabaziz gero, Altuna eta Martija finalerdietarako sailkatuko dira. Eta galtzen badute, arerio zuzenen emaitzek erabakiko dute.

Promozioan Bakaikoa finalerdietan

Promozioan, hamar puntura berdinduta dauden lehen bi bikoek, Bakaikoa-Elizegik eta Salaberria ordezkatzeko duen Dariok eta Erostarbek, elkarren kontra jokatu dute larunbatean Labriten. Irabazi edo galdu, bi bikoteak finalerdietara sailkatuko dira.

"LARUNBATEAN TXAPELKETAKO PARTIDARIK ONENA EGIN NUEN, AZKEN SASOIKO HOBERENA"

"IKUSITA NOLA IBILI GAREN, AZKENAK ETA SUFRITZEN, PLAY-OFFETAN SARTZEA SARIA LITZATEKE"

pasatzera derrigortzen dizulako. Eskertzen da txapelketan emozioa pil-pilean egotea.

Sailkapeneko goi aldera begira, zuen ustez zein bi biko sailkatuko dira zuzenean finalerdietarako?

J.: Askotan ez dut asmatzen, baina nik uste aurten bi lehenak Altuna-Martija eta Irribarria-Rezusta izango direla zuzenean.

X.: Ez dakit oso ongi nola dauden konbinazio posible guztiak, horregatik Josebarengan konfiantza izango dut eta berak esandakoaren alde egingo dut.

Hobetzen jarraitzeko ilusioa

ATLETISMOA Javi Gasanz Barragan korrikalari eta monitorea Espainiako Kros Luzeko Txapelketan aritu zen berriki Nafarroako selekzioarekin. Mendi lasterketen denboraldia hasteko irrikaz, Dantzaleku Sakana kluba indartzea da bere nahia

Maider Betelu Ganboa ALTSASU

Javi Gasanz Barragan korrikalari todoterrenoa da, baina bereziki mendi lasterketak ditu gustuko. Jokin Bereziartu bere lagun minarekin batera hasi zen. "Duela lau zapabost urte Jokini proposatu nion ea zergatik ez ginen mendian korrikan hasten. Eta horrela hasi ginen" dio. Orduetik ibilbide polita egin du, ilbeltzaren 30ean Espainiako Kros Luzeko Txapelketan parte hartzearekin borobildu duena.

Aurten 22 urte beteko dituen altsasuarrak aipatu duenez, bere lehen mendi lasterketa Tolosakoa izan zen. Hurrengo lasterketa luzea izan zen, lehendabiziko Tritoiena. "Oso motibatuta hasi ginen. Baina atzera begiratuta ohartzen zara 16 urterekin sekulako palizak hartzen genituela. Altsasutik atera, Gurutzeta igo, San Adrianera heldu, hura jaitsi, Beriain igo... gehiegi zen. Ero moduan hasi ginen" oroitzen du. Orduetik, beste hamaika lasterketa etorri ziren, bata bestearen atzetik. Sakanako probak, Nafarroakoak, eta baita Gipuzkoakoak ere.

2019an Zegama-Aizkorri Maratoian aritu zen, proba ezaguneko azkeneko edizioan. Zozketan egokitu zitzaion bertan aritzeko txartela. "Aitarekin lanean nengoen eta lagun baten mezu bat iritsi zitzaidan, Zegaman aritzea egokitu zitzaidalda esanez. Nik ezinezkoa zela erantzun nion. Baina egia zen" oroitu du. Orduan 19 urte zituen, eta maratoia gogorra egin zitzaion, "ez adinagatik, hanketan kilometro gutxi nituelako baizik. Baina esperientzia hori nirekin eramango dut beti" aitortu du. "Maratoia best orduren bueltan despeditzea espero nuen, baina beroarengatik oinetan babak atera zitzaizkidan

eta azkenean 5:49:13-koa izan zen nire denbora. Kontentu, proba bukatu nuelako. Gero babak infektatu ziren, sukarra izan nuen, makuluekin ibili behar izan nuen... baina hori ere pasa zen" gogoan du. Aurten ez du bertan aritzeko zozketan parte hartu. "Ez ditut maratoiak egingo. 20-30 kilometroko probak nahiago ditut" argi du.

Pandemiak 2020ko ia lasterketa guztiak bertan behera utzi zituen, eta Javi Gasanzek eta Jokin Bereziartuk erronka berezia egin zuten irailaren 4an: 24 ordutan Bargagainera elkarrekin zenbatetan igotzeko apustua. Axio Aranburu zenak zuen errekorra, 16 ordu pasatxotan 11 aldiz igo baitzuen Bargagain. Gasanzek eta Bereziartuk 12 aldiz igo zuten, 21 ordu eta 33 minututan. "Niretako egun hori kirolean bizi izan dugun orain arteko egun bereziena izan da. Kuadrillako jende guztia igo zen gu animatzera, behean ere herriko jende pila zegoen, eta giro polita sortu zen. Egunduek izan zen, oroimenean gordeta dudana" aitortu du.

2021eko garaipenak

2021 urteko ekainaren 20an Javi Gasanzek eta Jokin Bereziartuk Atarrabiako Hiru Mendi Trail lasterketa irabazi zuten bikotekako modalitatean. Aurretik, 2018an Lakuntza-Aralar Mendi Lasterketako ibilbide motzean hirugarren izan zen Gasanz, baina podiumaren gorena Ata-


BI GARAIPEN DITU GASANZEK: HIRU MENDI TRAIL, BEREZIARTUREKIN, ETA SANSILBESTRAIL

rrabian ezagutu zuen. Hala ere, Dantzaleku Sakanak 2021eko irailaren 4an lehenengoz antolatutako Bargagaingo Igoeran parte hartu ez izanaren pena du. "Udan beste behar batzuetan ibili nintzen. Entrenatzen hasi nintzenerako, ezin martxa hartu eta ezin izan nuen aritu. Etxeko proban aritzea izango da aurten go helburuetako bat" azaldu du.

Berehala berreskuratu zuen sasoa, 2021eko abenduaren 19an Esteribar Sansilbestrail lasterketa motza (8 km) irabazi baitzuen (35:28). "Eukeni Goikoetxea, Ivan Sobredo "Triki", Axi Estarriaga, Sergio Garcia de Eulate eta taldekideekin serie motzak entrenatzen asko ibili ginen sasoi horretan, eta Zubirira joatea erabaki nuen. Lasterketa hasieratik taldetxo bat jarri ginen aurretik, hirugarren kilometrorako korrikalari pare bat geunden bakarrik, eta gero aurrera egin nuen. Lasterketa ongi kudeatu eta helmugara bakarrik iristea lortu nuen. Irabaztea polita izan zen. Familiakoek eta lagunek txantxetan esaten zidaten lasterketaren bat irabazteko garaia bazela, eta pozik" aipatu du.

Espainiako Kros Txapelketa

Orduetik krosetan aritu da orain arte Javi Gasanz, emaitza onekin. Ilbeltzaren 9an 78. Muguerza Nazioarteko Oroimenezkoan parte hartu zuen, Elgoibarren, Triki eta Sergio Garcia de Eulate taldekideekin batera. Eguraldi petrala, baina beraiek "oso gustura" ibili ziren. "Lehendabiziko krosa izan zen. Ez genuen lasterketa amaitzea lortu, lehendabizikoek bikoiztu gintuztelako, baina helmugatiko metro gutxira izan zen. Seigarren kilometrorako bikoiztuko gintuztela espero genuen, baina azkenean 8



Javi Gasanz Elgoibarko Nazioarteko Krosetan, atzean Ivan Sobredo eta Sergio Garcia de Eulate taldeko kideekin.

kilometro eta erdi baino gehiago egin genituen. Altsasuko Krosetako nahiko ongi etorri zitzaigun" azaldu du Gasanzek.

Ilbeltzaren 16an jokaturako Altsasuko Krosa Nafarroako Kros Luzeko Txapelketa zen, eta lehendabizikoek sari ederra zuten: ilbeltzaren 30ean Jaenen jokatu zen Espainiako Kros Luzeko Txapelketan parte hartzea. Javi Gasanz 22. postuan sailkatu zen (35:19), eta Nafarroako Atletismo Federazioak 23 urtez azpiko Nafarroako selekzioan aritzeko hautatu zuen. "Altsasuko Krosa Trikiarekin batera egin nuen, biok antzeko maila dugulako. Gehienbat Triki joan zen tiraka, baina azken bueltan ni

"LASTERKETETAN AZKARRAGO IBILTZEA... HORREK LAN HANDIA DU ATZETIK" JAVI GASANZ

ere tiratzen ibili nintzen eta biak batera iritsi ginen helmugara. Ez nuen 23 urtez azpikoan sailkatzea espero, baina lortu nuen" aipatu du.

Entrenatzailea, bai ala ez

Javi Gasanz eta Izaskun Beunza olaztiarra izan ziren Jaengo Espainiako Kros Luzeko Txapelketan aritu ziren sakandarrak. 23 graduko tenperaturarekin jokatu zuten proba, alde nabaria. "Eguraldiak eragina du, baina azken finean agintzen dutenak hankak dira. Hankak fin badi-tuzu berdin du eguraldiak" dio Gasanzek irribarrez. Berehala konturatu zen Jaenen zeuden korrikalariak maila zutela. "10 km eta 200 m pasatxokoa zen proba eta ni 72. sailkatu nintzen (35:30). Hori nahiko azkar korrika egitea da, baina azkarrago joateak kristoren lana du atzetik: prestatzaileak, elikadura, material hobeak... denetatik" argi du Gasanzek.



Jekideak dituela. UTZITAKOA

Gasanzek Maisutza ikasketak egiten ditu, tarteka aitarekin lan egiten du, eta bere kabuz aritzen da entrenatzen. Ez du entrenaizailerik, baina hurrengo urteari begira aztertzen ari da, "zure kabuz entrenatzea oso zaila baita. Norbaitek esaten badizu: orain gelditu pixka bat, kasu egingo diozu, baina zuk bakarrik agian ez duzu behar hori ikusten. Lasterketa bat ongi prestatu nahi duzu, baina agian gehiegi entrenatzen duzu eta probaren egunean ez duzu zure %100a ematen. Horregatik hurrengo urtean entrenaizaileren bat hartzea ari naiz aztertzen, maila hauetan lehiazteko norbaitek zure ibilbidea gidatzea garrantzitsua izan daitekeelako" azaldu du.

Jaenera agenda eraman zuen, "ikusten nituen gauza guztiak apuntatzeko. Guztiak entrenaizailerekin zituztela eta elikadura oso ongi zaintzen zutela konturatu nintzen. Pentsa, Pirinioetan kontzentrazioak egin zituzten,

altueran. Beste maila batean zeuden. Guk Dantzaleku Sakanan ezin dugu hori egin, talde txikia garelako eta ez dugulako ahalmen hori, baina pixkanaka aurrera joango gara" dio.

Dantzaleku are gehiago indartu Gasanzek argi duena da bere ibilbidea jarraitzeko ez dela baliabide gehiago dituen beste klub handi batera joango. "Guztiak

BESTE KLUBETAKO SAKANDARRAK DANTZALEKURA ERAKARRI NAHI DITUZTE

GASANZEK ARGI DU EZ DELA BALIABIDE GEHIAGO DITUEN BESTE KLUB HANDI BATERA JOANGO

klub handietara joango bagina, ez litzateke berdina izango. Dantzaleku Sakanan jarraituko dugu lanean, ea guztion artean aurrera ateratzen dugun. Aurten talde polita dugu, eta ea beste klubetan dauden korrikalari sakandarrak gurera etortzea lortzen dugun, guztion artean talde elegante bat egiteko" espero du Gasanzek. Hori litzateke bere nahia, baina kontziente da Iruñeko klub handietan hamaika erraztasun eskaintzen dituztela eta Dantzaleku ezin duela horren kontra lehiatu. "Hori norberaren erabakia da, baina Dantzalekutik gainontzeko klubetan dauden sakandarrak erakartzen saiatu gara" gaineratu du.

Aurten 60tik gora neska-mutikok eman dute izena Dantzalekuko atletismo eskolan. Fermin Azkargorta, Javi Gasanz, Aitor Mendoza eta Ekhi Olabide dira monitoreak. Gasanzek txikienak trebatzen ditu, 6 urtetik 9 urtera bitartekoak, eta beraiekin "oso gustura" dagoela aitortu du. "Gaztetxo asko daude eta horrek sekulako poztasuna ematen du. Kirol hau gustuko dute eta oso polita da eurekin lasterketara klub gisa joatea, sentsazio bikaina. Aspalditik ez ginela Dantzalekutik horrenbeste korrikalari lasterketara joaten, eta, gainera, maila polita dute. Gurasoei hasieratik esan genien aurten helburuetako bat lasterketa ahalik eta gehienetara joatea zela, haurrek lasterketen xarma hori barneratzeko, eta lortzen ari gara" dio, pozik. Gasanz jakitun da kluba aurrera ateratzeko oraindik lan asko dagoela egiteko, "baina pixkanaka guztion artean egingo dugu" espero du.

Joan zen urtean 30 gaztek eman zuten izena Dantzaleku Sakanako mendi lasterketen taldean. Sekulako arrakasta izan zen, baina pandemiagatik sortutako booma izan zen, aurten taldea ez baita atera. "Dena den, gazte asko kirolean hastea lortu genuen, eta euren kabuz kirola egiten jarraitzea. Alde horretatik kontentu gaude" azaldu du Gasanzek.

Mendi lasterketara buelta

Mendi lasterketa denboraldiari ekingo dio Gasanzek. Ekainean jokatu den Berga Trail Espainiako Mendi Lasterketen Txapelketa du begiz jota. Atletismo Federazioak mendi lasterketa taldea osatuko du eta 23 urtez azpikoan hautatua izatea nahiko luke. Horretarako martxoaren 27an Lerinen jokatu den traillean aurreneko postuetan sailkatu beharko luke. "Ea horrela den. Aurten Nafarroako Txapelketa proba gehienak egin nahiko nituzke. Dena den, orain lasterketak ez dira nire lehentasuna. Lasterketa hau edo hori egitea. Gehiago gustatzen zait nolako bilakaera izan dudan ikustea. Gorputzean hobekuntza nabaritzea, eta gorputzak estimulu horri nola erantzuten dion ikustea. Lehen bakarrik lasterketetan zentratzen nintzen, baina orain bilakaerari ematen diot garrantzia" dio. Tritoiena, Uharre Arakil Beriain Km Bertikala eta Bargagaingo Igoera egin nahiko litzuzke, sasoiaren badago. Sakanako proba politena Olatzagutia-Urba mendi lasterketa da berarendako, "hor irabazi nuelako lehendabiziko edo bigarren kopa, gaztetxoa nintzela. Beti dut gogoan" aipatu du.

Eukeni Goikoetxearekin asko entrenatzen du. "Eukeni martxoan Espainiako Km Bertikalen Txapelketa joango da, Extremadurara, eta klub gisa harro egoteko modukoa da. Eukeni sekulako makina da" dio, taldekideaz harro. Pozik dago Gasanz, "korrikan hobetzeko ilusio hori beti dudalako". Korrika egiteak asko ematen dio, "ez dakit nola esan, agian lasaitu antzeko bat. Ikasketak, lana... egunerokotik askatzeko modu bat da. Orain taldean hasi gara serieak egiteko hitzordua jartzen, eta harremanak izateko beste modu batean bilakatu da korrika egitea. Giro ona dugu. Kirolean harreman on asko egin ditut eta espero dut bizitza osorako izatea" dio.

Dantzaleku, zabal-zabalik

Korrika egiteko zaletasuna duten sakandarrak euren gaitasuna gerturatu animatu ditu. "Serieak egiteko edo korrika egiteko anima daitezela Dantzalekura etortzen, eta gurekin harremanetan jar daitezela, lasai asko. Elkarrekin entrenatu dezakegu. Izan ere, beti bakarrik entrenatzeak burua asko erretzen du. Klubeko ateak zabal-zabalik daude. Edonor etor daiteke, Dantzalekuko bazkide egin... eta nahi dutena. Aurten estatu mailako lizentzia dugu, eta estatuko edozein proba gertatzen ematen ematen izena klub gisa. Beraz, anima daitezela. Gutxika pausoak ematen ari gara" nabarmendu du. Dantzaleku oraindik klub handiagoa egin nahi dute. "Ongi legoke guztiak urdinez jantzita korrika egitea, baina horretarako denbora beharko dugu" ondorioztatu du.



Javi Gasanz, Jaenen jokatu Espainiako Kros Luzeko Txapelketan. NAFARROAKO ATLETISMO FEDERAZIOA

1. AUTONOMIKOA GIZON.

2. FASEA. 6. JARDUNALDIKO EMAITZA
Lagun Artea - Artajonés 0-1

SAILKAPENA

1. MAILA AUTONOMIKOKO JAITSIERA

1 Zarramonza 36
10 Lagun Artea 22

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

16:00 Lagun Artea - Burladés (Zelai Berri)

Lagun Arteak Burladés hartuko du

Azkeneko lehiak galduta, mailari eusteko puntuatu beharra dute lakuntzarrek.

1. AUTONOMIKOA EMAK.

1. FASEA. 18. JARDUNALDIKO EMAITZA
Amigó - Altsasu 15-0

SAILKAPENA

1. AUTONOMIKOKO EMAK. 2. MULTZOA

1 Mulier 49
10 Altsasu 1

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

19:00 Gazte Berriak - Altsasu (Antsoain)

Altsasuk Gazte Berriak arerio

Ligako bigarren fasean, Altsasuk Gazte Berriak du lehen arerio.

FUTBOL PREFERENTEA

21. JARDUNALDIKO EMAITZA
Amaya - Etxarri Aranatz 5-1

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 Injerto 50
14 Etxarri Aranatz 19

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

16:30 Etxarri - Arrotxapea (San Donato)

Etxarri, buelta ematera

Amayan jasotako jipoia ahaztuta, Etxarrik ongi aritu nahi du Arrotxapearen kontra.

FUTBOL ERREGIONALA

19. JARDUNALDIKO EMAITZA
Amaya B - Altsasu 1-2

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 3. MULTZOA

1 Aurrera 47
2 Altsasu 40

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN

16:15 Altsasu - Iruña B (Dantzaleku)

Altsasu-Iruña, bigarren postua jokoan

Igandean erregionaleko sailkapeneko bigarren postua erabakiko da Dantzalekun.



Joseba Perez, Oier Gastesi eta Xabier Olaiz lehen mailako taldeen harrobietako jokalaririk. UTZITAKOAK

Futbolari sakandarrak, talde handien jomugan

FUTBOLA Villarrealak Haurren Lehen mailako Gazte Berriak jokatzen duen Joseba Perez fitxatu du. Oier Gastesi Athletic-eko Gazteen A mailako atezaina da eta Xabier Olaiz Aldaz Lehen Kadete mailako Osasuna B taldeko atzelaria

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Villarreal C.F. taldea Nafarroako futbol taldeetan jokalaria bila aritu da beste behin, eta lanak fruituak eman ditu, Antsoingo Haurren Lehen mailako Gazte Berriak taldean jokatzen duen 13 urteko Joseba Perez Fernandez jokalaria lakuntzarra (2008) fitxatu baitu datorren denboraldian Villarreal taldeko harrobian jokatzeke.

Jakina denez, Gazte Berriak taldeak Osasuna futbol taldearekin hitzarmena du eta Osasuna taldeak ere Perez jokalaria-engan interesa bazuen. Baita Real Sociedad futbol klubak ere, baina 13 urteko hegal ezkerria izan da Castellongo taldean aritzea nahi izan duena. Familiak adierazi duenez, erabaki zaila izan da, baina semeen nahia hartu dute kontuan, Joseba bera izan delako datorren denboraldian Villarrealera joateko erabakia hartu duena.

Joseba Perezen Gazte Berriak taldea denboraldi bikaina egiten

ari da. Haurren Lehen mailako lider sendoa da: jokatutako hemezortzi partidetatik hemezortzi irabazi ditu eta bakarra berdindu. Taldearen zenbakiak ere ikusgarriak dira: 106 gol sartu ditu eta soilik 10 sartu dizkiote.

Nafarroako 14 urtez azpiko selekzioan Gazte Berriak taldeko jokalaria asko daude, Joseba Perez tartean. Hain zuzen ere, asteartean Taxoaren entrenamendu saioa egin zuten eta Osasunako teknifikazio taldearen kontra partida jokatutako partidatan 0 eta 4 irabazi zuten.

Dagoeneko, zenbait futbolari sakandar talde handien harrobietan ari dira trebatzen. Oier Gastesi Athleticen dago eta Xabier Olaiz Osasunan. Gehiago izan

PEREZ VILLARREAL EN ARIKO DA. GASTESI AURTEN HASI DA ATHLETICEN ETA OLAIZ OSASUNAN

daitezke, baina Guaixeko erre-dakzioan ez da informazio gehiagorik jaso.

Oier Gastesi Athleticen

Oier Gastesi Serrano altsasuarra (2003) Athletic taldeko atezainetako bat da. 1,90 metroko garaiera duen gaztea Altsasu Kirol Elkartearen hasi zen atezain eta ondoren Donostiako Antiguoko klubean jarraitu zuen prestakuntza, kategoria ezberdinetan nabarmenduz. Zubietan ere probatu zuen, baina 2021/2022 denboralditik Lezamako atezainetako bat da, Gazteen A mailako taldekoa, hain zuzen ere.

Xabier Olaiz Osasunan

Xabier Olaiz Aldaz altsasuarra (2007) Osasunako harrobian jokatzen du. Osasunako Kadeteen B taldeko defentsa da. Nafarroako Kirol Jokoen Lehen Kadete mailan jokatzen du Osasuna B-k, eta lider da jokatutako hamazazpi partidetatik hamasei irabazi eta bakarria galdu eta gero.



Xotaren entrenamendu bat. XOTA

ARETO FUTBOLA

Coronavirusak Xota hankaz gora jarri du

Taldean izandako bost positi-boengatik Osasuna Magna Xotaren egutegia guztiz eraldatu egin da. Talde berdea larunbatean itzuliko da ligara, Manzanarensen kontrako partidarekin. Asteartean ligako partida jokatuko du Xotak Anaitasunan, Santa Colomaren kontra. Eta talde berberarekin Errege Kopan jokatu beharreko partida martxoaren 2ra atzeratu da.



Imanol Erbiti, Andalucian. MOVISTAR TEAM

ARETO FUTBOLA Erbiti Andalucian eta Izagirre osatzen

Imanol Erbiti hiriberriarra (Movistar Team) asteazkenean hasi zen Andaluciako itzulian lehiatzen. Bitartean, Gorka Izagirre bere taldekidea Provenceko Tourrean izandako erorikoaz osatzen ari da, Ziordian. Ez du hausturirik, baina kolpe latza hartu zuen. Bestalde, aipatzekoa da Igor Arrieta (Kern Pharma) Jaengo Itzuliko ihesaldi batean sartu eta bere maila erakutsi zuela.



Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai. UTZITAKOIA

Erkuden Ruiz Barroso IRURTZUN

Duela hamazazpi bat urte Mirari Martiarena Idoia Torregarairen bekadun izan zen Udako Euskal Unibertsitatean, komunikazioaren arloan. "Bat egin genuen gauza askotan, baina bereziki umorean". Urte batzuk beranduago, Martiarenak Torregarairi elkarrizketa egin zion Oiartzun irradian eta galderetako bat "zer gertatzen zaizu oraindik egiteko?" zen: "Idoiak erantzun zuen Mirarirekin monologo bat". Duela lau urte unea iritsi zen, eta biak elkarrekin bakarrik egiten hasi ziren. "Historia eta harreman luze" bat dutela esan du Torregarai: "Umora bikiak garela esaten dugu; berdin pentsatzen dugulako". *Bakean dagoena bakean utzi bakarrik* ikuskizunaren ondoren, Luze edo motz saioa aurkeztu dute, eta igandean, otsailak 20, 19:00etan, Irurtzongo kultur etxean izanen dira.

Bakarrik egiten egunerokotasunean "kezkatzen edo ezinegona sortzen" dieten gaietatik sortu dituzte: "Zertaz hitz egin nahi dugu, zer da mugitzen gaituena, zertaz hausnartzea nahi dugu eta zeri egingo diogu barre". Kontatu nahi dutena, nahiz eta gai "serioak" izan, umoretik kontatzen dituzte. Hausnarketa hori egiten dutenean behin paperera eraman behar dutenean, "oso erraz" egiten dutela azaldu du Torregarai, "aipatutako kezka edo ikuspegi horiek lantzen joaten garelako".

Barrearen atzean, mezua

Idoia Torregarai eta Mirari Martiarenak 'Luze edo motz' bikote bakarrik egingen dute. Umorearen bidez emakumezkoek egunerokotasunean jasaten dituzten egoerak azalera dituzte. Hausnarketarako bidea da umorea

Luze edo motz ikuskizunaren egunerokotasunaren gauzei buruz hitz egiten dute. "Ez dugu ezer asmatu. Lantzen ditugun gaiak ez dira gai nagusiak edo lerroburu nagusiak, bigarren maila batean daudenak dira. Gehienak emakumeen gaitzat, kakotxen artean, direnak direlako". Hilerokoari buruz, ginekoloarengana joateari buruz, menopausiari buruz, sexuari buruz edo emakumezkoaren masturbazioari buruz hitz egiten dute, besteak beste, bakarrik eta saio honetan. "Normalean naturaltasunez hitz egiten ez

"UMOREA ARINKERIZ HARTZEN DA, BAINA UMOREAREKIN GAUZA SERIOAK LANDU DAITEZKE"

diren gaiak dira", azaldu du Martiarenak.

Umorearen bidez

"Zer nahi dugu umorearen bidez deseraike? Baita barre egin ere, baina agerian jarri nahi ditugu". Bizitzetatik eta esperientzietatik abiatu dira, baina "landu beharreko gaiak dira oraindik orain eta ikusten dugu umorea deseraikezteko eta eraikitzeke tresna ikaragarria dela", azaldu du Torregarai. "Gainera, ondo pasatzen dugu". Publikoa barrez ateratzen da, baina buruari ere eragiten dio. "Hortik abiatuta gauza batzuk lortu nahi ditugu; buruari eragitea nahi dugu". Publikoaren erantzuna "ona" izaten dela esan du Martiarenak, "eta askotan errepikatzen den esaldia bazen garaia da. Bazen garaia honi buruz hitz egiteko". Emakumeen artean ez delako gai horiei buruz hitz egiten,

"erakutsi digutelako tabuak direla, gauzak zikinak direla, eta hobe horri buruz ez hitz egitea".

Jendeak barre egiteko premia duela esan du Martiarenak. "Bardirudi umorea arinkeriz hartzen dela, gauza arina dela, baina umorearekin gauza serioak ladu daitezke. Momentu serioetan edo mina ematen duten momentuetan umorea sartuta eramangarriagoa egiten da dena". Bi umoregileek "autokontzientzia" bat dute, bizitza umorez ikusteko hartutako erabakia. "Horrek ez du esan nahi bizitza arinkeriaz bizi dugunez, baina umo-

"BI EMAKUME IKUSTEN DITUZTENEAN, BERAIENTZAKO EZ DELA PENTSATZEN DUTE GIZONEK"

rearekin eramangarriagoa da". Torregarai azaldu du umorea "estrategia ona" dela mezuak helarazteko. "Gure munduan behar dira ikerketa potoloak eta horri buruz modu serioan hitz egin behar da, baina umorea ere askotan baztertuta gelditzen den tresna eraginkorra da". Aldatu nahi diren gauzak aldatzen saiatzeko eta "fokua bertan jartzeko" erabiltzen dute. "Azpibalaratutako estrategia bat izaten da, eta guk azalera dugu".

Emakumezkoak

Martiarenak esan du emakumezkoek oraindik ere plaza hartzea kostatzen zaiela, eta hori aldarrikatu nahi dutela: "Emakumeek beti erakutsi izan zaigu nola egon behar garen: bigarren maila batean, diskretuak, ez dugu nabarmendu behar, barrezka ari bagara ere esaten digute ez egiteko barre hain altu... Beti bigarren maila batean". Orain, martxoaren 8aren bueltan emanaldi asko izanen dituztela aipatu du, "baina ez da errealia. Emakumeak berdintasun zerbitzuetatik kontratatzen gaituzte eta gizonzkoek kulturatik. Oraindik desberdintasun oso nabarmena da. Gu plazaz plaza oso gustura ibiltzen gara, baina antolatzaileek horri buelta bat eman beharko liokete.". Bi umoregileek pausua eman zuten jakinda "eskema asko apurtzera" joanen zirela, "emakumeoi oholtzaren zentroan 'txorakeriak' esaten egoteko ukatu egin zaigulako".

Haien ikuskizun publikoa, orokorrean, emakumezkoak izan ohi dira: "Kartela ikusten dutenean eta bi emakume ikusten dituztenean gizonzkoak ez dakit zer nolako konexioa egiten dute eta hau emakumeentzako da eta niri ez dit axola pentsatzen dute". Baina ikuskizuna gizonzko batek egiten badu, unibertsala eta guztientzako bezala hartzen dela salatu du Torregarai. "Oso harro gaude emakumeak hurbiltzen zaizkigulako, azken finean, protagonistak gara, bai oholtzan bai beste aldean. Alde horretatik, polita da". Pixkanaka horrekin apurtzen joan behar dutela esan du. "Hausnarketa hor dago, emakumezkoak doaz gehien bat kulturara; zergatik gizonak ez dira kultur ekitaldietara hurbiltzen, are gutxiago, emakumeek egindako kultur ekitaldietara? Guk dezentzako egiten dugu".

Artistak ikastetxean

Nafarroako Gobernuak Musikariak ikastetxeetan programa 2018-2019 ikasturtean martxan jarri zuenetik, hainbat musikari Sakanako ikastetxeetan izan dira haien musikaren ibilbideari buruz hitz egiten. Helburua euskal musikaren transmisioa bultzatzea da. Esaterako, Joseba Irazoki musikaria, otsailaren 10ean Altsasuko Bigarren Hezkuntzako Institutuan egon zen, haren musikari izateko ametsa nola bete zuen kontatzen. Idazleak ikastetxeetan programari esker, otsailaren 14an bisita berezia izan zuen Altsasu BHI-k: Joseba Sarrionandia idazlea bigarren batxillergoko ikasleekin egon zen.



@IES_ALTSASU_BHI



@IES_ALTSASU_BHI



BAZTERRETIK

MIKEL MAIZA RAZKIN

Akira

Gaur, lagunok, ene bihotza zabaltzera etorri naiz. Esaidazue oroitzen al zarete zein izan zen zuek inoiz eman zenuten lehen muxua? Erromantikoki esan nahi dut. Amiñarenak ez dute balio. Nik oroitzapenean daukat finko markatuta. Berotasun eta zirrara haiek behin baino ezin dira dastatu eta betirako ihes egiten dute. Oroitzapenean gelditzen zaizkigu inoiz ahaztu ez ditzagun. Ni (erromantikoa izateaz gain) friki hutsa naiz. Eta ez dut inoiz ahaztuko hain bortizki harrapatu ninduen komikia. Ez duzue sinetsiko, ez dut oroitzen zein urte zen, baina oroitzen dut ni gaztea nintzela. Pentsa orain duela 10 urte gutxi gora behera. Behin baino gehiagotan neukan izenburua entzunda.

Liburuetan batez ere. Japoniar manga bat. Zaharra gainera. DVD batean ikusi nuen idatzita behin, baina ez nintzen inoiz ausartu bideoklubeko dendariari eskatzen. Kondaira bat balitz bezala. Garrantzi handikoa den zerbait, baina ezagutu ezin dena. Hitz bat. Japonieraz: AKIRA.

Behin, aurkitu egin nuen. Iruñeko liburutegi batean. Ez nekien zehazki zertaz hitz egiten zuen, baina banuen susmoa potoloa zela. AKIRA lehenengo sailetik azkeneraino. Serie guztia. Mirari bat agian? Momentu horretan, egia esan, (eta drama alde batera utziz) ez nion garrantzia handirik eman. Kuriositateak harrapatu ninduen, baina bah... momentu hartan ez bainekien inoiz irakurri

dudan komiki zirrargarriena neukala nire muturretan.

Lehenengo liburua irakurri eta zirraratuta gelditu nintzen. Komiki honek dena dauka: abenturak, gertakari paranormalak, anarkia, politika, drogak, laguntasuna, gizon zaharren aurpegiak dituzten umeak... Eta formalki bineten konposizioa kristoren dinamikoa, marrazki ikaragarriak, xehetasunez bete.

Nire iritzian Akira bezalako komiki gutxi daude munduan. Honetaz objektibotasunez hitz egiten ez naiz gai. Hortaz, ulertzen dut gehiegikeria dela pentsatzen baduzue. Zuen Akira bilatzera animatzen zaituztet. Murgildu komikien zirraran eta maitemindu zaitezte haien historiek.

"Kaos Etiliko itzultzeko momentu egokia zen"

ZIGOR LEZA ETXEBARRIA MUSIKARIA

Agurainen duela mende laurden sortutako taldea agertokitara itzuliko da. Disko bat ere kaleratuko dute, momentuz: 'Reuelta'

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

1990ko hamarkadaren amaieran Kaos Etiliko taldea sortu zen Agurainen. Bi disko kaleratu ondoren, *No hay agua* eta *Por supuesto*, taldea desegin, eta taldekideek bide desberdinak hartu zituzten. Taldea sortu zela 25 urte betetzen direnean, Zigor Leza Etxebarria abeslariak Kaos Etiliko berpiztu du. Altsasun bizi den aguraindarrarekin Fernando Jimenez lakuntzerra eta Jon Calvo altsasuarra ariko dira, baita Lumbre oñatiarra eta Jox gasteiztarra ere.

Kaos Etiliko itzultzen da.

Bazen garaia.

25. urteurrenean, nola eta zergatik?

Itzultzeko gogo aspaldi zegoen, are gehiago, talde originalarekin egitea ere planteatu zen, izan beharko lukeen bezala, baina gonbidapena deuseztatu zuten eta, orduan, itxoitea eta 25. urteurrena ongi egitea pentsatu nuen. Iritsi da, eta pande-

miari esker-edo, ongi etorri zaigu disko bat eta bestearen zati bat ia egin dugulako. Urteurrenaren harira disko bat aurkeztuko dugu, *Reuelta*. Horretan egon gara urte pare bat lanean, lokaletik estudiora, etxetik gutxi pasatuta.

Beraz, pandemiak itzulerarekin zerikusirik izan du?

Ez du zerikusirik izan, baina ongi etorri zaigu pentsatzeko, gauzak ongi lotzeko eta horrekin aurrera egiteko. Pandemia hasi baino pixka bat lehenagotik disko bat prozesuan genuen, eta aurretik ere beste bat atera genuen, + *Kaos Ke Nunka*, eta ezin izan genuen ia defendatu. Orduan, esandakoa, buruan duela zenbait urte taldea berreskuratzea nuenez, momentu egokia dela uste dut.

Nola hartu dute zaleek?

Gogoia bazegoen. Harrera oso ona izan dugu. Denetarik egon behar du, noski, eta baten bati seguruenik ez zaio horrenbeste gustatu albiste. Baina orokorrean lehenago izan behar zuela esaten dute. Baina ezin izan da aurretik izan, orain da momentua; 25. urteurrena eta modu handia ospatzeko aukera.

Nola pasatu dira urte hauek?

"ESPERIENTZIA GEHIAGO DUT ETA DENA SORTUAGO ETA EGINAGO BEZALA DAGO"



Kaos Etiliko taldea. UTZITAKOIA

Nork begiratzeko duen eta esaten duenaren arabera. Adibidez, nik, momentu honetan, bi egun pasatu balira bezala ikusten dut. Zerbait oso polita izan ahal izan zena, hor gelditu zen, eta orain berriz hartzea; ez dago besterik. Ez diot buelta gehiago ematen. Argi dago 25 urte pasa direla, eta ez da gazte moko batzuk ginenean bezala. Baina nik gogo eta indar berdinak sentitzen ditut, gehiago ere. Esperientzia gehiago dut eta dena sortuago eta eginago bezala dago. Ni gaztetxo bat bezala sentitzen naiz, eta uste dut hori eszenatokian erakutsiko dugula.

Baina gizartea, pandemia bat tarteko, eta musikaren mundua bera aldatu dira. Taldean eragina izan dute?

Nik uste dut ezetz. Jarraitzen dugu Kaos Etilikoren estela horretan. Badakigu nola egin behar den. Bere garaian nik egiten nituen abestien egitura, letra, melodiak eta abar, eta berdin jarraitzen dugu. Horregatik, ez da asko aldatzen. Musikaren zentzuan agian bai garatu dugula, baina ez dugu askoz aurrerago joan nahi, uste dugu letra xumeeekin, nota errazekin eta denek eta jo eta denek kantatu dezaketen abestiekin, estribillo itsaskor batekin, giltza dela jendearengana iristeko. Beraz, denboraren igarotzeak, pandemiak eta abar ez digu asko eragin. Egia da musikaren mundua asko aldatu

dela, okerrera, nire ustez; orain musikaren pertzepzio bat dago non egun batean hogeitabesti ateratzen dituzun erritmo kultura batekin. Nik uste horrek ez duela meriturik, eta arrakasta handia dute. Guk lan asko egiten dugu, eta horrela lan egitea gustatzen zaigu. Nik uste ez dudala inoiz regaetoia egingo.

Nork daki...

Agian norbaitek kolaboratzeko eskatzen dit eta liatzen dugu... Ez, ez. Ez dut uste kasua izango denik.

Taldekideak berriak dira. Nola aurkitu zenituen?

Taldea, berez, ez da berria. Nik aurretik ezagutzen nituen. Hainbeste bidaia eta hainbeste joan-etorri Gasteizera eta abar, Lumbre izan ezik, besteak musikaren mundutik ezagutzen nituen. Aspaldi izan behar zuen taldea dela uste dut. Oso ongi defendatzen dute nahi dudan zuzeneko. Pertsonalki ere, oso pertsona onak dira, zaila izaten da taldeko konplizidate hori mantentzea, izan ere, musikariak oso arraroak izan ohi gara. Horregatik, sortu dugun harremana baloratzen dugu.

"K.O. ETILIKO HASIERATIK PENTSATUTA GENEUKAN, TRANTSIZIO BAT ZEN"



Zigor Leza Etxebarria, Kaos Etiliko-ko abeslaria. UTZITAKOIA

Esperientzia gradu bat da?

Bai, uste dut baietz. Musikalki eta pertsonalki hazi naiz, gehiago egian musikalki 25 urte hauek gelditu gabe egon naizelako. Taldekideak ere ez dira hasiberriak, urte asko daramatzate honetan.

2020an '+Kaos Ke Nunka' diskoa kaleratu zenuten, pandemia etorri zen, eta ezin izan zenuten bezain beste mugitu. Zein izan zen K. O. Etilikoren ibilbidea?

K. O. Etiliko hasieratik pentsatuta geneukan, trantsizio bat bezala izatea nahi genuen, zerbait itzuliko zela esatea, izango zena aurreratzea. Ekaitza zetorrela. Hori zen K. O. Etiliko; Kaos Etilikoren oso antzeko zerbait egitea horrek jarraitzeko. Aldi berean, Kaos Etilikoren abestiak ere jotzen genituen, eta ikusten genuen

funtzionatzen zutela eta harrera ona zutela. Baina zoritxar hori izan genuen, diskoa ongi atera genuen, bost edo sei aretotan jo genuen, eta martxoan bat-batean bira osoa moztu ziguten. Oraindik 40 bat kontzertu eman behar genituen. Baina ez genuen jipoi bat bezala jaso edo ze pena gertatu zaiguna. Alderantziz. Aurrera egin eta lanean jarri ginen laster aterako dugunean. Tarte honetan ez ditugu kontzertuak egin nahi izan ez genuelako justu ikusten pertsona ongi pasa-

"JARRAITZEN DUGU KAOS ETILIKOREN ESTELA HORREKIN, BADAKIGU NOLA EGITEN DEN"

tzeko eta festa egiteko askatasun hori frustatzea, are gehiago, sarrera bat ordaindu dutenean. Jendea eserita ikustean gaizki sentituko nintzen ni, eta haiek. Noizbait proposatu ziguten, eta ezetz esan genuen.

Disko berria kaleratuko duzue: 'Reuelta'. Nolako da?

Diskoa oso osatua da, denetarik dauka. Pixka bat Kaos-en jarraipena eramateko, baina aldi berean, pixka bat garatzeko. Agian egon daiteke hasieran soinua identifikatzen ez duen jendea, baina bigarren edo hirugarren aldian bai, Kaos dela ikusiko du. Diskoak gizarteari eta gizartearen arazoiei buruz hitz egiten du, bai pertsonalki bai talde bezala sortzen direnei buruz; gai indartsuak daude, erasoak eta abar bezalakoak. Badugu ere Bunburi taldearen abesti baten bertsioa. Entzun nuen eta Kaos denari moldatu nuen. Bi urte izan ditugu forma emateko, eta horretan gaude oraindik.

Noiz aurkeztuko duzue?

Martxoaren 4an Gasteizko Jimmy Jazzen joko dugu eta ordurako diskoak egotea espero dugu. Ondoren, maiatzaren 5ean Zentralen egingo dugu kontzertua. Ea nafarrak animatzen diren. Egia esan, Gasteizko harrera oso ona izaten ari da eta sarrerak agortzen ari dira. Albistea eman genuenetik erantzuna oso ona izaten ari da, eta horrelako zerbait espero dugu Iruñean. Data gehiago ditugu itxita, eta Hego Amerikatik ere interesa erakutsi dute.

Etapari berri bat da, zeintzuk dira espektatibak?

Nik ez nuen espero izaten ari den erantzuna, baina ez dut gehiegi emozionatu nahi ere. Lurrean dagoen pertsona bat naiz, nahiz eta garena izatera iritsi garen, ez dela gutxi. Orduan, uste dut jarraitu behar dudala bide horretatik: umiltasunetik eta gauzak nola egin behar ditudan jakinda, aurrera, aldetara begiratu gabe. Hori da esentzia. Helburua etorkizunean jarraitzea da. Diskoa kaleratu dugu urtero disko bat ateratzeko intentzioarekin. Argi izan dut beti jarraitu behar zuela.

Hasierako Kaos Etilikoren kolaborazio txiki baten aukera dago?

Ez dut uste. Niregatik, bai; ni prest, oso pozik egongo nintzateke. Baina ez dut uste. Bakoitzak bere bidea hartu zuen.

"Mendia eta egoera irakurtzen jakin behar da"

Mendizaletasunak bultzatuta mendi eskia egiten hasi zen Zigor Gartzia Arregi 'Zian' etxeberriarra. Mendian ez ezik, eski estazioetan aritzea atsegin du. Elurra egiten duenean inguruetan eskiatzea gustatzen zaio ere

Erkuden Ruiz Barroso ETXEBERRI

1 Nondik datorkizu eskizaletasuna?

Zaletasuna aspalditik. Duela 20 urte inguru. Mendian ibili izan naiz eta zenbaitetan arriskutsua zenez, deskubritu nuen eskia. Orduan, mendira joateko beste modu segurua zen, eta harrapatu ninduen. Lehenago pistetan hasi nintzen.

2 Mendi eskia egiten duzu, beraz. Beste modalitatek egiten duzu?

Batez ere, mendiko eskia. Egia da gero alpetar edo pistako eskia ere ongi etortzen dela, batez ere, denboraldi hasieran eta eskiatu gabe denbora bat daramatzazuean; hankak egiteko eta berriz ere eski teknika perfektionatzeko. Mendian aukera handirik ez dago hori egiteko.

3 Zer behar da?

Kontua pixka bat konplikatu da. Pistan bezala botak, eskiak, kaskoa... Baina mendiko eskietan fakal batzuk eramaten ditugu maldan gora joateko, bestela ezin genuke. Badira xafila moduko batzuk, elurra gogorra dagoenean krak-krak egiteko, aurreratu ahal izateko. Oso garrantzitsua da segurtasuna. Mendian elurra oso aldakorra izaten da. Ezinbestean eramaten dugu lokalizatzeko gailu bat, motxilan beti pala daramagu eta elurretan pertsonak aurkitzeko sonda antzeko bat. Baita kranpoiak eta pioleta ere.

4 Arriskua kontuan hartuta ere, gustatzen zaizu.

Mendiari errespetua ezin zaio galdu. Neguan eta elurrarekin oso kontutan hartu behar diren beste eragile batzuk daude. Aurrez egindako planifikazioa oso-oso garrantzitsua da. Azken aldian oso izoztuta dago. Egunak oso politak izaten ari dira. Goian



Zigor Gartzia Arregi. UTZITAKOA

topatzen dituzun ikuspegiak eta sententziak ederrak dira. Baina izotza dela, gero abalantxak elur kopuruagatik edo plakengatik direla... Egoera irakurtzen jakin behar da ere, nondik sar gaitezkeen eskiekin eta nondik ez. Esperientziak erakusten dizu mendia irakurtzen.

5 Edonork egin dezake?

Gutxienez, eskiatzen jakin behar duzu. Askok aldatzen da pistetan edo mendian eskiatu. Igotzeko lau gauza esanda edonork moldatzen da, baina nekagarria da eta gero jaitsi behar duzu. Elurra ez da pistetan bezala egoten; mendian elur mota desberdinetan zehar ibiltzen zara. Edonorrendako bada, gogoak baditu, buru pixka batekin eta kasu eginda; guk beti ikasi dugu baina esperientzia gehiago duen jendearekin ibiltzen.

6 Nora joan ohi zara?

Lehenagian gehiago mugitzen ginen. Hemendik asko Formigal, Panticosa, Benasque eta inguru horretara. Aspaldi honetan, eta elurra egiten badu, egia da hemen inguruan pila bat disfrutatzen dugula.

7 Baina geroz eta elur gutxiago egiten du...

Klima aldaketa nabari da, eta eragina du. Astero kotxea hartu eta urrutira joateak ere eskatzen du. Adina dela edo bestea dela, geroz eta gutxiago egiten dugu. Egia da Pirinioetako mendiek badutela zerbait, baina ikasi dugu elurra dagoenean hemengo inguruez disfrutatzen. Badira ezkutuko txoko oso politak.

8 Materiala erositakoa da?

Horrek eboluzio bat badu ere. Lehen askoz material astu-

nekin ibiltzen ginen, eta orain geroz eta arinagoak dira. Nik neuk ez dut kompetitzen, baina kompetizio kutsu hori iristen da; material arinagoak erosteara eta horrelakoak. Egia da, hasiera bateko inbertsioa potoloa izaten dela, baina edozein kiroletan bezala.

9 Estazioetara joaten zara ere?

Bai, eta atsegin dut. Denboraldiaren hasieran edo pistara joateko aukera duzunean, eta baldintza egokiak badaude; elur bota berria dagoenean edo mendira joateko gehiegizko elurra dagoenean, pistara joateko aprobetxatzen duzu. Oso gustura joaten naiz. Kasu honetan agian Frantzia aldera joan gara, oso baldintza egokiak daude. Muturra azkar berotzen zaigu.

10 Zaletasuna handitu dela naribaritu duzu?

Azken urtetan gorako joera izan da. Mendizaletasunetik pasatu ginen eskira, eta ikusi dugun joera da lasterketatik edo eskia-tzetik mendira hurbildu dela jendea. Zerk eraginda? Bada ez dakit. Agian pistek duten ikaragarriko prezioa izan daiteke. Jende gehiago ikusten da, baita koadroa arraroak ikusten dira ere. Ez dakit esperientzia falta den edo ez dutela mendia ezagutzen, baina lehen ez zitzaigun okurritzen mauka motzetan edo eskularrurik gabe elurretan sartzea. Holakoak ikusten dira. Elurrean edozein erorikoan mina hartu ahal duzu. Oso polita da eta asko disfrutatzen dugu, baina tentuz ibili behar da.

11 Aurten egin duzu?

Bai. Gehiegiz dioguan, baina aukera izan dugunean ibili gara. Batez ere Zuriza inguruan egon gara; oso gustura.

2022-2023
matrikulazio
Kanpaina

Beharrezko material guztiarekin lagunduko dizuegu

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

gik **f** **o**
 619 821 436
 info@gkomunikazioa.eus
 www.gkomunikazioa.eus
 Foru plaza, 23-1. Altsasu

DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA